# GEU

2,40 € 2009ko maiatza **195**

euskara
**'arabako euskal toponimia'**
**mintzalaguna & mintza eguna**
**oihane perea**

gizartea
**sufrimenduaren bazterretan**
**amnistia internacional**

kultura
**xiba topaketak**




# ARF09

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

# sumarioa 195


## geupertsonaia

luis mari mujika:
'arabako euskal toponimia' ................6-9

## geugaia

xiba topaketak 09 .......................11-15

## bat4tan ............................

sufrimenduaren bazterretan, jesus maraurirekin
(patxi zubizarretaren testua) .............16-19

## arte txokoa

ander filma ............................20-21

## euskaltasunean

oihane perea, abtx'09ko txapelduna .......22-23

## bat4tan ............................

amnistia internacional ..................26-29

## arte txokoa 2 ......................

azkena rock festival 09 ..................30-33

## geugaia2

mintzalaguna egitasmoa & mintza eguna ....34-37

**beste:**

agenda, kaletik, geusex, araba bixotzian, historia eta idazleen zutabeak, errezeta eta umorea


6-9













GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhoa arriaga, naroa cuesta eta ane pedruzo | azala: arf09 – electric eel shock taldea | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orrazketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: patxi zubizarreta, erlantz urtasun, miren lpz de arregi (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola). | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | **GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.**

Laguntzaileak:

www.geugasteiz.com





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## GEU ELKARTEA

**ANDER**
**FILMAREN PROIEKZIOA +**
AKTOREEKIN SOLASALDIA
(PILAR RODRIGUEZ/PAKO
REVUELTAS/JOSEAN BENGOETXEA)
**MAIATZAK 15 OSTIRALA**
**18:30 LUIS DE AJURIA ARETOAN**
DOAN
**GEU ELKARTEA & GAUEKOAK-EN ESKUTIK**

**GEUREKIN MENDIRA**
**MAIATZAK 17 IGANDEA**
**ARNO (628M)**
MUTRIKUKO OLATZ AUZOAN
ARRATSALDE ERDIRA ARTE
LOVAINA PLAZATIK / KOTXEZ
ORDUA: 9:00
**ARDURADUNA: JOSEBA (945200973)**
**GEUREKINMENDIRA@GMAIL.COM**




**KULTUR ERROTA**
**MAIATZAK 26 ASTEARTEA**
**SUZKO LILIA**
HEDOI ETXARTE ETA ANDONI ARCILLA
OLERKIA, MUSIKA ETA ESTEREOFONIA
**20:30 PARRAL TABERNAN**

**IRAKURLE KLUBA**

**MAIATZAK 28 OSTEGUNAREKIN**
CHINUA ACHEBE, GAINBEHERA DATOR DENA, ALBERDANIA-ELKAR 2007

**EKAINAK 24 OSTEGUNAREKIN**
JOANJO OLASAGARRE, T , ALBERDANIA 2008

**HIKAATENEOAN, PINTORE KALEA 13, 20:00**
**KONTAKTUA: IBAN.ZALDUA@EHU.ES**

**WWW.GEUGASTEIZ.COM**
**GEUELKARTEA@GRN.ES / 945222153**




## EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN JAIA

**AIAN, MAIATZAK 3**
MUSIKA, DANTZA, JOLASAK, PAILAZOAK...
**WWW.SORTZEN-IKASBATUAZ.ORG**

## XIBA TOPAKETAK

**MAIATZAK 23**
**OZETAN**

## LIBURUTEGI BIZIDUNAK

• TXAKOLINA: ELABORAZIOA ETA DASTATZEA – SOLASALDIA – IMANOL SARASOLA
**MAIATZAK 19, 19:00, LAKUA G.E.-KO HELDUENTZAKO LIBURUTEGIAN**
**IZENA-EMATEA: MAIATZAK 12-17 (EURO 1)**
• TXIMULOGIA – BAKARRIZKETAK, IMITAZIOAK, TXISTEAK – JON PLAZAOLA
**MAIATZAK 27, 19:00, JUDIMENDI G.E.-KO HELDUENTZAKO LIBURUTEGIAN**
• NIRE BAITAN IZANGO ZARA BETI – IPUIN KONTALARIA – IÑAKI CARRETERO (NARRATZAILEA) & USUE ZAPATA (MUSIKARIA)
**MAIATZAK 29, 18:30, ABETXUKO G.E.-KO LIBURUTEGIAN – FAMILIA OSOARENTZAT (+6 URTE)**
• NO SABEMOS EUSKERA, ¿CÓMO AYUDAR A NUEST@S HIJ@S EN LAS TAREAS ESCOLARES? – HITZALDI PEDAGOGIKOAK – IÑAKI EIZMENDI
**MAIATZAK 20, 18:30, ARANA G.E.-KO LIBURUTEGIAN (GAZTELERAZ)**

## DANTZA: NORA

**TRASPASOS DANTZA TALDEA & MIKEL URDANGARIN**
**MAIATZAK 23 (18:30 + 20:30) & 24 (19:30)**
JESUS IBAÑEZ DE MATAUKO ANTZOKIAN - HEGOALDE G.E.- (10 EURO)
**WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG/TEATROS**
**945161045**

## EUSKAL NARRATIBA GAUR HITZALDI ZIKLOA. GAURKO ELEBERRIA

**GASTEIZ. EHU. 10:30**
• NOBELA ETA GENEROA.?ANJEL LERTXUNDI
**MAIATZAK 6. LETREN FAKULTATEA. GRADU ARETOA**
**WWW.EUSKO-IKASKUNTZA.ORG**

## INTERNET BIDEZKO BIDEO LEHIAKETA

**BARTZELONAKO EUSKAL ETXEAREN EUSKAL ZINEMA ZIKLOAREN BARRUAN**
BERTSOLARITZA + BIDEO-SORMENA
**EPEA: MAIATZAK 3 (14:00)**
**INFO+OINARRIAK:**
**HTTP://BLOG.EUSKALETXEAK.ORG/CATEGORY/FESTIVALS/ZINEMALDIA/**

montehermoso

## MONTEHERMOSO. TAILERRAK (UMEAK & GAZTEAK)

**CMK TALDEA**
**LARUNBATERO 11:00–12:30**
DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA
8-13 URTE BITARTEKOENTZAT
**TXIKIART**
**LARUNBATERO 18:00**
DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA
4-8 URTE BITARTEKOENTZAT (HELDU BATEK LAGUNDUTA)
**WWW.MOTEHERMOSO.NET**




## UDALEKUAK 09

**URBASAN, 7 LURRALDEAK, 7 EGUNEZ**
ASTEBETEKO EGONALDIAK UZTAILEAN
KULTURA, LAGUNAK, JOLASA, NATURA, IRTEERAK, SORMENA, HIZKUNTZA, HEZKUNTZA, KIROLAK, ABENTURA
**INFO: +34 943670249 /**
**URBASANBAGARA@UDALBIDE.NET**
**WWW.UDALBIDE.NET**

## INFORMATIKARI EUSKALDUNEN VII. BILKURA

**MAIATZAK 7, DONOSTIAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIAN**
**INFO+: WWW.UEU.ORG / WWW.ENPRESADIGITALA.NET**

## XXI. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

**EPEA: MAIATZAK 15**
**INFO+: ANDOAINGO UDALA**

## BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

**MONTEHERMOSO KULTURUNEA**

**BISITALDI GIDATUAK**
**ASTEAZKENERO, 19:30 / LARUNBATETAN, 13:00 (EZ DA BEHARREZKOA DEITZEA)**
TALDEAK: ASTEARTETIK OSTIRALERA, 18:00

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

(AURRETIK ERRESERBA EGINEZ)
**[945161859 / EDUCACION@MONTEHERMOSO.NET]**
BISITALDIAREN HASIERA: ARGIBIDE ZERBITZUAN

**HAU EZ DA BISITA BAT**
**IGANDERO 13:00**
BISITARIEK PROTAGONISMOA HARTZEN DUTEN ZENBAIT DINAMIKAREN BITARTEZ ERAKUSKETARI BURUZKO DISKURTSO BERRIAK ERAIKITZEN DIRA

**WWW.MONTEHERMOSO.NET**

**ARTIUM**

**>ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK**
(bakarkakoentzat / gehienez 3 lagun dei bakoitzeko)
**EGUNERO 11:30**
**ASTEAZKEN, LARUNBAT ETA IGANDERO 18:30**
BANAKO BISITARIENTZAT. DOAN. PLAZA MUGATUAK

**>TALDEENTZAKO BISITALDI HITZARTUAK**
DERRIGORREZKOA ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EGITEA (73 EURO)
**>ARTIUM TXIKIA**
**(3-5 URTE + HELDUAK, IGANDEETAN 12:15-13:30)**

**>GOIZEAN ARTIUMEN**
**(6-11 URTE + HELDUAK, IGANDEETAN 12:00-13:30)**

**>FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK**
**(5-11 URTE + HELDUAK/LARUNBAT & IGANDEETAN 12:30-13:15)**

**UDARI BEGIRA: ZURE HIRIA EZAGUTU ETA APROBETXATU / GAZTETXOENTZAKO UDALEKUAK**
**IZENA-EMATEA: MAIATZAK 4 (KIDEAK) / MAIATZAK 7 (GAINONTZEKOAK)**

**INFO + ERRESERBAK: 945209010**
**WWW.ARTIUM.ORG**




## BARRE TERAPIA IBERNALON

Zer da barrea? Erantzun mekanikoa edo fisiologikoa? Ala barneko emozioak agerrarazten dituen jarduera psikologiko baten ondorioa??Zerk sortzen digu barrea? Txiste edo txantxa umoretsu bat entzuteak, albokoak estropezu egiteak, norbera agerian gelditzeak, kilimak jasotzeak… Barre egitea mesedegarria dela ziurra da; are gehiago, zenbait sendagileren ustean, gaixotasunak uxatzeko metodo merke eta eraginkorra da. Beraz, osasuntsu eta alai bizi nahi baduzu, etorri ikastarora.?

**"BARREA DA LURRALDEKO HERRI GUZTIEK ESPRESATZEKO ERABILTZEN DUTEN LENGOAIA BAKARRA". CHARLIE RIVEL**
**HELBURUAK**
- Inhibizioak gainditzea
- Barrearen gozamenean murgiltzea
- Une zoriontsuak lortzea
- Barrearen erregistroak ezagutzea: barre-algara ozenak, irribarre lotsatiak, irri-karkaila zaratatsuak, erdi-ezkutuko irribarre isilak, isekaz beteriko barre faltsuak...

**IKASTAROAREN ARDURADUNAK:**
- Edurne Lasa Amorebieta, Magisteritza eta Pedagogia Terapeutikan Diplomatua, UEUko kidea. Aktorea.
- Jose Mari Larrañaga Arrizabalaga, FP Administratibo, UEUko kidea. Aktorea.

**NORI ZUZENDUA:** Osasuntsu eta alai bizi nahi duen edonorentzat.
**PARTAIDE KOPURUA:** 10 lagun gutxienez, 20 gehienez..
*OHARRA: ARROPA EROSOA EKARTZEA GOMENDATZEN DA. ESTERILLA EDO MANTATXOREN BAT ERE BAI.
>**ORDU KOPURUA GUZTIRA:** 6 ORDU (10:00 / 13:00-15:00 / 18:00)
**>NOIZ: MAIATZAREN 23AN ( LARUNBATA)**
**>NON: IBERNALO LANDETXEA (KANPEZU - ARABA)**
**>KONTAKTUA: 945102271 (KARLOS)**

## MENDIAK ASKE ELKARTEA

**'ENERGIA EOLIKOA BAI BAINA EZ HORRELA'**
**MAIATZAK 8-9, GASTEIZKO KULTURA ETXEAN**

**MAIATZAK 8, OSTIRALA, 19:30-21:30**
19:30 PEDRO URIBE-ETXEBARRIA (BOTANIKOA)
20:30 JOSE ANGEL CUERDA (GASTEIZKO ALKATE OHIA)
**MAIATZAK 9, LARUNBATA, 10:00-13:00**
10:00-11:00 IÑAKI LASAGABASTER (KATEDRADUNA)
11:00-12:00 KOLDO ORTIZ DE GINEA (MENDIAK ASKE)
12:00-13:00 DEBATEA

## EKITALDI BEREZIA: SABEL-DANTZA. ARABESCO ASC. 2. URTEURRENA

**>'CAMINOS DE ARENA' IKUSKIZUNA**
**MAIATZAK 16, J.I. DE MATAUKO ANTZOKIAN (HEGOALDE G.E.), 19:30 (5 EURO)**
• DANTZARIAK: ROSADELA, YAMUNA BALETA, GRAVITY TALDEA, LEANY, ESTIBALIZ ARANDA, ARABESCO ASC. ETA ARABESCO KONP. / MUSIKA ZUZENEAN NAZIOARTEKO MUSIKARI BATEKIN
• + SORPRESAK SARRERAK SALGAI JADA
**>ROSADELA-REKIN TAILERRAK**
**MAIATZAK 17**
• 12:00-14:00. MUGIMENDUAK ETA BIBRAZIOAK PERKUSIO HUTSERAKO, 30 EURO
• 17:00-20:00. SAIDI KLASIKOA (DANTZA BASTOIAREKIN), 40? 2 TAILERRAK: 65 EURO + IKUSKIZUNERAKO SARRERA OPARI / PLAZA MUGATUAK
**www.arabescoasc.com / www.rosadela.com / www.gravedadzero.es**




UEU laguntzailea: GIZARTE EKINTZA Obra Social Caja Vital Vital Kutxa



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 'ARABAKO EUSKAL TOPONIMIA'

**EUSKARAREN JATORRIA HIZKUNTZALARI ASKOREN AFERA IZAN DA, DA ETA IZANGO DA. HIZKUNTZA PRE-INDOEUROPARRAREN NONDIK NORAKOAK AZTERTU ETA HIPOTESIAK FORMULATU DITUZTE BATZUEK. BESTEEK, AZTARNATEGIETAN URTEAK IGARO. LUIS MUJIKAK, ALDIZ, TOKIEN IZENAK IZAN DITU AZTERGAI. HERRIEN, ITURRIEN, LANDEN... IZEN BEREZIAK. TOPONIMOAK, ALEGIA.**

## LUIS MARIA MUJIKA URDANGARIN

# "GAZTELANIA ERROMANTZE BEZALA EUSKALDUNEN AHOTAN SORTU ZEN"

**t.** naroa cuesta **a.** edorta sanz

Luis Mari Mujika Urdangarinek (Lizartza, 1939) euskal izenen aztarnak bildu ditu. Gipuzkoarra izanik bertan hasi zen lanean, hamazortzi tomo argitaratuz guztira. Iparraldeko toponimoen zerrenda ere osatu zuen, hiru liburukitan. Baina azkeneko hamarkadan Araban murgildu da euskal toponimoen bila. Emaitza: Hiria argitaletxearekin argitaratu berri duen 'Arabako euskal toponimia' izeneko azterketa, orotara hamabi tomo, 24.000 toponimo euskaldun.

Erroman eliza-ikasketak burutu ondoren filologia ikasi eta 1982. urtean Euskal Filologian doktoretza lortu zuen. 'Latina eta erromanikoaren eragina euskal lexikoan' izanik bere tesi lana. "Eskerrak latina hartu zuen lexikoan, bestela euskara desagertuta izango zen jada", baieztatzen du Mujikak. Guztira 65 bat liburu argitaratu ditu: filologia, literatura, poesia... Gero, "honetara" bildu zela dio, hots, toponimoen unibertso ezezagunera. Izatez, badira aurrez Arabako euskal toponimoen bidea jarraitzeari ekin diotenak, baina Mujikaren lana guztietan sakonena eta emankorrena da.

Euskal Herrian izan den hainbat ziklo kulturalen berri ematen digu toponimiak. Izan ere, hizkuntzek aztarnak uzten dituzte eta horien bila aritu da Luis Mujika bederatzi urtez Arabako artxiboetan. Toponimia, beraz, pazientzia eskatzen duen zientzia da. Deustuko Unibertsitatean irakasle jardun du eta egun EHUn ematen ditu klaseak, Donostiako Irakasle-eskolan. Euskaltzain urgazlea ere bada.

Arabako euskal jatorriaren inguruko zalantzak argitzeko asmoz Luis Mujikarekin batera euskal toponimoen unibertsoan murgildu da GEU honakoan.






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Euskal Herriko toponimiaren inguruko ikerketa anitz burutu ostean 'Arabako Euskal Toponimia' lan mardulean murgildu zinen, ezustekorik aurkitu duzu honako ikerketan?**

Printzipioz ez nuen uste hain euskalduna izan zenik probintzia. Lautik hiru euskal toponimiaren jabe izango da Araba. Historikoki, beraz, euskal probintzia izan da. Erdalduntze prozesua etorri da apurka-apurka XVI. mendetik aurrera, eta ikaragarri gainera. XX. mendean egin zen lehenengoz euskarari buruzko inkesta, azkoitiar batek egin zuen 1971n. Orduan probintzian mila eta zazpiehun euskaldun zahar zegoen bakarrik. Aramaio eta Legutio aldeko herrixka batzuetan..., zendu dira dagoeneko. Aldiz, nik hartu ditudan azkeneko datuen arabera hirurogei mila euskaldun omen daude gaur egun Araban. Umeen euskalduntze prozesua oso azkarra izan dela esan nahi du horrek. Hasi behar gara jakitetik gutxienez. Beste datu bat emango dizut nik inferitu dudana gutxi gorabehera: Araba oraindik geografikoki euskalduna zenean, nik uste, ez zirela pasako hogeita lau mila euskaldunetik gora. Jar dezagun orduan ere % 60 bazela euskalduna, beraz, hiru aldiz euskaldun gehiago dago gaur egun Erdi Aroan baino; beno, zenbaki absolutuetan, erlatiboan ez noski. Zuen optimismoa pixka bat gora joateko diot.



> "gutxi gorabehera hiriburutik hamabost kilometrora iristen da euskal toponimia jarraitua burgosen

**Noiz eta nola murgildu zinen toponimiaren mundu honetan?**

Nik egin nuen lehenengo toponimia lana Gipuzkoakoa izan zen, errazagoa ere bazen. Diputazioaren laguntzarekin hamazortzi tomo atera nituen. Noizbehinka kuriositatez Iparraldeko euskararena ere tartekatu nuela, hiru liburuki orotara. Gero ezaguna nuen Lopez de Gereñuk egindako lana. Berak ez zekien euskara, baina liburu zaharretatik hartuz hamabi mila toponimo euskaldun atera zituen Araban. Nik hogeita hamar mila topatu ditut probintzia osoan, eta erdaldunak zazpi mila besterik ez. Ikusten da garbiro euskararen gune geografikoa zela Araba, dudarik gabe. Beraz, XVI. mendean Gasteiz euskalduna zen baina gero galtzen du erabat.

**Zein da ikerketa burutzeko erabilitako metodologia? Nora jo duzu informazio bila?**

Batez ere iturri historikoak erabili ditut. Euskara galtzerakoan hizkuntzaren memoria ere oso nahasia zegoen. Horregatik erabili ditut dokumentu zaharrak, testamentuak, hipotekak... XVIII. mendeko hipoteka asko gelditzen da, non eta beti gazteleraz dauden, baina hitzak errekuperatzea posible izan da. Lurretan eta landetan "amillaramentuak" egiterakoan, hau da, zatiketa egiterakoan beti mantentzen zen iturriaren izena, esate baterako. Hemen egiten zen molde gehiena mendebaldeko euskara zen, hau da, bizkaieratik datorren formulakoa. "R"ren aurrean bokala ireki egiten da: (hiri ordez huri) uribarrena (el poblado), esate baterako; zonalde txiki batean kenduta Nafarroaren ukitua duena. Kontrasta aldea, hain zuzen ere. Alde fonetikoari garrantzi handia eman diot. Sintesi bat egin dut eta gero zein dokumentutatik hartu ditudan aipatzen dut: erregistroak, artxibo probintzialak... Herrietan badaude artxibo batzuk, baina gehienak artxibo probintzialean bilduta daude; errazagoa izan da.

**Zer-nolako garrantzia du toponimiak hizkuntzen jatorria edo aztarnak zehazteko orduan?**

Zalantzarik gabekoa. Bestela ezin da azaldu Arabak hogeita lau mila euskal toponimo edukitzea..., hizkuntza horretan esaten bada esan nahi du hitz egin dela. Aldiz, ezin dizut frogatu Guardian euskara hitz egin zenik..., euskal toponimo gutxi dago. Ba al dakizu muga non egiten duen? Kantabriar mendikatean. Hortik gora, Lagran adibidez, gehiena euskalduna da. Hortik behera, Leza esaterako, toponimo gehienak gaztelera puru-purua dira. Hortaz, edo ez ziren inoiz euskaldunak izan edo galdu zen osokoz..., euskal toponimoak oso euskorrak baitira.

> "euskalduntze prozesua errekuperazio prozesua da eta ez konkista

**Horrenbestez, Arabako eskualdeen artean alde handia dago...**

Kantauriko mendialdean edo Errioxan euskal toponimo oso gutxi dago baina Trebiñun, adibidez, zonalde batzuetan toponimoen % 65 euskalduna da. Bertan, berrogei bat herritan euskal toponimoak dira nagusi baina beste hamabostetan, mendebaldean daudenak (mendirik ez dagoen tokian) euskal toponimia oso baliogabea da. Trebiñuko kasua benetan da berezia. Trebiñu, tricinio, tres limites... bertan bildu



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ziren hiru tribuak euskaldunak ziren. Autrigoiak (historialari gehienek diote erromatarrak etorri zirenerako euskara galduta zutela baina euskaldunak izan zirela noizbait), karistiarrak (bizkaiera hitz egiten zuten tribuak ziren, Gipuzkoan Deba ibaira arte sartu zirelarik), eta gero giputzak garenak, barduliarrak. Hiru tribu horien formulazio dialektala nolabait islatzen da Araban pixka bat. Antroponimia zaharraren eta berriaren arteko borroka dago. Arabako euskara beraz, beste guztien arteko bidean dagoela esan daiteke. Goitikan etorritakoa eta hemen hedatutakoa, baina hemen bertakoa izan dena ere bai. Autrigoiak izan ziren tokietan euskal toponimia gutxiago dago, baina hala ere, egon badago.

> “
> **Iautik hiru euskal toponimiaren jabe izango da araba**

**Gauzen izenak aldatzen al dira denboraren poderioz?**

Ez dira asko aldatzen, bakarrik egin daitezke degradatu, hemen gertatu zaigun bezala. Errekaleor, ba al dakizu nola agertzen den dokumentuetan? Ricalior, río seco... eta horrelako nahaste asko dauzkazue. Erdi Aroan behintzat horren testigantza garbia da, probintzia gehiena euskalduna izan zen.

**Toponimiaren berezitasunen arabera muga geografiko eta politikoak zehaz daitezke. Noiz izan zuen euskarak hedapenik handiena Araba aldean?**

Arabako euskara jaitsi zen Logroñoko Errioxaraino; Errioxa Goikora, alegia. Baita Ezcaray aldera ere. Demanda mendiak “alhandia” zuen izena: al handia. Soriaraino iristen zen mendikate hau eta Beloradon, Burgoseko probintzian, mila eta bostehun euskal toponimo publikatuak dauzkat nik. Gutxi gorabehera hiriburutik hamabost kilometrora iristen da euskal toponimia jarraitua Burgosen. Harrituta geratu nintzen, nortzuek eraman zuten haraino? Segur aski arabar euskaldunek. Hots, elebidunak izan balira edo erdara jakin





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

izan bazuten... erdara eramango zuten, ez zuten euskaraz egingo. Horregatik, nik uste dut euskaldunak elebakarrak zirela XII. mendean. Santo Domingo de la Calzadan eta Haron ere badira euskal toponimoak. Araban, beraz, elebakarrak zirenean zekiten hizkuntza bakarra hura zen, euskara zen. Nik uste bertan zeudenak ibero edo zeltiberoak zirela eta Erdi Aroan euskaldunen hedapenez euskaldundu egin zirela. Geroago euskara galdu zuten. Gesaltza-Añanako zonaldea, aldiz, erdalduna da oso eta bi erriberetan ere euskal toponimo oso gutxi dago. Beste iritzi bat aipatuko dizut: gaztelania erromantze bezala euskaldunen ahotan sortu zela. Bokalismo argia dauka. Bost bokal baino ez ditu eta beste hizkuntza erromantzeek bokal gehiago dituzte. Katalanak adibidez zazpi bokal dauzka, frantsesak bederatzi... eta euskara oso soila da, beraz, bost bokal eman dizkio gaztelerari.

**Bertako biztanleak euskal jatorriaz kontziente al dira?**

Bai, susmatzen dute, lehen ez baina orain bai. Trebiñun ikusi dut interes askoz handiagoa jende artean beste lekuetan baino. Lizartza-k, adibidez, Fresneda esan nahi du... eta orain arte ez dira konturatu baina erabili egiten dute. Sorpresa handia hartu dut... leku guztietan ari dira euskara ikasten, euskara errekuperatzeko asmoz.

**XVI. mendetik aurrera euskararen erabilera nabarmenki egin zuen behera Araban. Auzo eta herri berrien toponimiaren inguruan zer deritzozu? XV. mendeko irizpideak mantentzen al dira?**

Bai, nik uste, nahiko fidelak izan zaretela. Gasteizko kasuan Aranbizkarra, Arana eta horiek denak errekuperatu egin dituzue... eta nahiko ongi gainera, Euskaltzainditik pasako ziren ziur. Aldiz, Iruñea ondoan pasatzen den ibaiari "río salado" deitzen diote, izenez *gesala* denean. Esan eta ez dute kasurik egiten. Zorionez gurean Eusko Jaurlaritza dago.

**Euskara desagertzeko zorian egon zen Araban. Noiz sortu zen zugan ikerketa hau burutzeko grina?**

Niri pertsonalki momentu horietan sartzen zait ikertzeko grina. Beste batzuek ehun eta hogei toponimo aurkitu dituzten lekuetan nik mila eta berrehun topatu ditut. Hau da, orain esaten ez direnak baina noizbait esan direnak eta dokumentuetan ateratzen direnak. Zaharrenetan errekuperazioa dago nolabait. Gainera gero, XX. mendean, partzelazioa heldu zen, hau da, lurrak elkartu egiten zirela eta izen bat hartzen zutela. Horiek ere jasoak izan dira, jasoak, beren bariante guztiekin.

**“ hitz egin da euskara araban eta hizkuntzak aztarnak utzi ditu, nik aurkitu ditudanak**



**Zenbat urte eman dituzu Arabako toponimia ikertzen? Dagoeneko, amaitutzat ematen duzu lana?**

Bederatzi urtez aritu naiz ikertzen eta oraingoz utzi dut. Egindako lanaz pozten naiz izan daitekeelako justifikazio bat. Barkatu, baina bai, hitz egin da euskara Araban eta hizkuntzak aztarnak utzi ditu, nik aurkitu ditudanak. Beraz, euskalduntze prozesua errekuperazio prozesua da eta ez konkista. Hori, nik uste, inportantea da. Izan ere, argumentu ona da Arabako eskoletan egindako lana azaltzeko, halako egoera tamalgarria zegoelarik XX. mende hasieran eta erdialdean oraindik ere. Argumentu bat da, errespetatu beharrekoa. Gero nik etimologia ematen dut eta ñabardura latinoa dagoenean esan egiten dut azterketa egiterakoan. Nondik etor litekeen baldin badakigu esaten dut.

**Euskarak esparru anitz irabazi ditu Araban azken bi hamarkadetan. Zein da, zure ustez, egungo erronka nagusia?**

Erabilera. Zaila, astiro... baina problema hori dute herri guztiek. Uniformaziora goaz eta nik, hala ere, ez dut ulertzen espantsionismoaren beldur izatea, manifestazioak egitea Katalunian, adibidez, katalanaren kontra. Gaztelerak dena inbaditzen du... eta hemen ere altxatu zaizkigu batzuk erdal ereduen alde.

**Iruña-Veleiako aztarnategiaren inguruko auzia ezin alde batera utzi... min handia eman al die Arabako euskararen inguruko ikerketei?**

Kalte egin dio, bai. Seriotasun falta izan da. Entzun nuen lehen aldian dudak izan nituen, ikusi nituen hitz batzuk... gero harritu egin nintzen hain goiz euskara izkiriatua egoteaz; euskara ez da izan idatziaren hizkuntza●

HELADOS
Nestlé


IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

Euskara,
gure lurralde
libre bakarra

araba@aralar.net • Izardui komandantea 7 behea • 945 154 220
aralar

PARRAL
TABERNA
Eguerditan, astelehenetik ostiralera
JANTOKI
BEGETARIANOA
SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33

ZURE HARATEGIAK

AIZPEOLEA
harategia
arraindegia
frutategia
okindegia
Florida Azoka 2 eta 3 Tl. 945 13 24 48

Jose Luis
GARMENDIA
Haragia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13 Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

25 ARTEPAN
1983-2008 vitoria - gasteiz
Jesus Guridi, 2
Tl. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - Tl.
945 068 888
01005 GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia
· Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
· Musika eskola
· Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - Tl: 945 22 34 33

Euskadik
behar zaitu
EAJ
PNV

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar restaurante albéniz
Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK · LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2
Tl: 945 13 27 20

Confecciones
Pinedo
Jantziak
San Antonio, 11 · Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 · Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE
euskaltegia
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



# XIBA TOPAKETAK. VI. EDIZIOA. MAIATZAK 23 OZETAN

**DIOTENEZ, JOLASA GIZAKIA IZAN AURRETIK BAZEN. ANIMALIA GARATUENEK ASMATU ZUTEN GU LURREAN AZALDU AURRETIK. HORRELA, MILIOIKA BELAUNALDITAN ZEHAR IZAKI BIZIAK EDOZERTAZ BALIATU IZAN DIRA JOLASEAN ARITZEKO, FRUITUAK, BUREZURRAK, MAKILAK... JOLASA BERAZ, GIZAKIAREKIN BATERA GARATU ETA LURREKO KULTURA GUZTIEN BEREIZGARRI IZAN DA, BADA ETA IZANGO DA. IZAN ERE, JOLAS ETA JOKORIK GABE EZ DAGO KULTURARIK, ETA KULTURARIK GABE EZ DAGO HERRIRIK. TESTUINGURU HONETATIK ABIATU BEHAR DUGU XIBA PROIEKTUA EZAGUTZEN HASTEKO. PREST?**

# HERRI KIROL ETA JOLASETIK HARATAGO DOAN BALORE-FILOSOFIA BAT

**Xiba; pertsonak ez dio jolas egiteari uzten zahartzen delako, baizik eta jolas egiteari uzten diolako**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



eguneroko lan gogorrak dituzte aitzindari. Horrela, hasieran eguneroko lanak ziren horiek, denborarekin kirol bihurtu ziren, auzolanetan sortzen ziren lehiak bideraturik. Izan ere, auzolanaren zereginetan, non baserri desberdinetako kideek elkar laguntzen zuten, familia bakoitzaren ospea jokoan zegoen eta garaiko euskaldunentzat lanerako zuten ahalmena erakustea oso garrantzitsua zen prestigioa lortzeko. Horrela jaio ziren

**t.** ane pedruzo **a.** edorta sanz

Xiba, Ikastolen Elkarteko egitasmo bat dugu eta euskal jolas, joko eta kirolak berreskuratu, gaurkotu eta transmititzea du xede, betiere euskara sustatuz eta euskaraz biziz. Helburuak helburu, Xiba-k filosofia mamitsua du atzetik; Eneko Ibañez eta Endika Zinkunegi Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko kide eta Xibako Arabako arduradunek berau hurbildu digute.

## Gozamena xede

Jolasa, jokoa eta kirola. Hona hemen askok gaizki ulertzen ditugun hiru termino. Izan ere, adin tarte zehatzekin identifikatzen ditugu, ondorioz jolas-ume, joko-gazte eta kirol-heldu binomio okerrak barneraturik dauzkagularik. Endikak azaldu digunez, jolasa gozamena eragiten duen edozer gauza da. Jokoa berriz, jolasean arau estandarizatuak ezarri eta irabazle eta galtzaile paperak azaltzen direnean ematen da. Azkenik, kirola, jokoa maximizatzen denean jaiotzen da eta gaur egun gailentzen dena ez da osasuntsua, bere aldarrikapen bakarra irabaztea baita, errentagarritasunaren mesedetan. "Kirola sistema kapitalistaren kide bihurtu da, baita artea, dantza edo musika bezalako diziplinak ere. Egun gure aisia guztiz kontsumista da, kirola egitera gimnasiora goaz, musika entzuteko kontzertuetara..., ondorioz sormen lana eta herri mugimendua hiltzen ari direlarik". Honela deskribatzen du Endikak gure errealitatea. Xibako sustatzaileen aburuz, gaurko bizimoduak, zoriontasuna astialdian soilik bilatzera eramaten gaitu, ludikotasunetik urrunduz eta norbanakoa egoera desorekatu batera eramanez, non estresa, depresioak, frustrazioa, motibazio falta edo herstura maiz pairatzen ditugun. Xibak ulertzen duenez baina, zoriontsu izateko modu ludikoan gozatzen ikastea behar-beharrezkoa da, beraz, bizitzako esparru eta adin tarte guztietan jolas egin beharko genukeela defendatzen dute, jolasak gozamena baitakar, ludikotasuna.

Gainera, jolastuz, besteen emozioak ulertu eta norbere emozioak horien arabera kudeatzeko gaitasuna lortzea ere bilatzen du Xibak, gorputz heziketaren bidez emozioak biziarazi egin behar direla defendatzen duelarik. Horrela, pertsona osasuntsu bat fisiko eder batekin identifikatu beharrean, osasuna oreka emozionalarekin erlazionatzen du egitasmo honek.

## Jolasa, unibertso kulturala

Jolasak eta jokoak jatorriz ez dira unibertsalak, murgiltzen diren kulturaren araberako sare sinbolikotik sortzen baitira. Beraz, sare sinboliko hauen arabera hartzen dituzte ezaugarri nagusiak eta harmonian daude komunitate bateko kulturarekin. Honen inguruan ere mintzatu zaizkigu Eneko eta Endika. "Jokoak kulturaren zati eta adierazgarri dira", aldarrikatzen du Endikak, "joko guztien atzetik historia baitago".

Gurea euskal komunitatea da, eta Xibak beraz, euskaldunon tradizioari eusten dio, euskal jokoak sustatuz, herri kirolak ezagutaraziz.

Herri kirolak, euskaldunon bizibidearen erakusgarri goretsiak dira eta gehienek baserriko



beraz, herri kirolak. Hauetan, lanabesak dira baliabide nagusiak, pisuak, ingudea edo orga kasu, eta lehiakideen indarra neurtzen da gehienetan, baita trebezia ere. Ezagut ditzagun!

## Pilota: eskuz egina, larruz estalia, azalaren luzapena, gizakiaren adiskidea

Pilota euskaldunon kirolik ezagunena da, mugak gainditu dituena eta praktikatuena ere. Baserri giroan arrakasta handikoa zen, joko errazekoa izanik, pixkanaka kultur sinbolo bihurtu dena. Egia esan, normala da, nekez aurkituko baitugu euskal herri edo



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

herrixkarik bere frontoirik gabe. Bertan pilotara jokatzen zuten gure arbasoek, lagun artean, eta gaur egun ere horretan darraigu. Endikaren ustez baina, "azkenaldian kirol masifikatuaren kutsua" hartu du pilotak, non lehia eta apustua diren nagusi.

## Iraganean baserriko lana, orain herri kirola



XIX. mendean, industrializazio aroa gurera heldu aurretik, azienda zen baserritarraren oinarria eta Euskal Herriko ekonomiaren eragilerik nagusienetakoa, hortaz, asko dira baserri giroan kokatu behar ditugun herri kirolak.

**Sega**-k esaterako, antzina basoak soildu eta belardiak ugaltzen ziren unean egin beharreko lana du oinarri eta funtsean belarra mozteam zetzan. Bizkortasunez egin beharreko jarduera bat zen, euriak belarra busti eta galdu ez zedin eta testuinguru horretan auzokideen arteko lehen desafioak sortu ziren, belarra mozten trebeena zein zen edo eta belar azalerarik handiena zeinek mozten zuen ikusteko. Horrela jaio zen gaur egun ezagutzen dugun sega herri kirola.

Ebakitako belar hori, denborarekin lasto bihurtzen zen eta baserriko ganbaran bildu beharra zegoen, ondoren ikuiluko abelburuak elikatzeko. Behar horretatik jaio ziren beraz **lasto jaurtiketa** eta **lasto altxatzea** jokoak. Jaurtiketa, sardea erabiliz lasto fardela altuera mugatu baten gainetik botatzean datza eta altxatzea, lasto fardela ahalik eta aldi gehien jasotzea du xede.

Honez gain, baserriko lehengaien bilketa eta garraio lanek ere hainbat herri kirolen sorrera ekarri zuten. **Zaku proba** horietako bat da. Joko honetan, pisu jakin bateko zakua sorbaldan eramanez distantzia mugatu bat ahalik eta azkarren egin behar da eta gurdiak errotara heldu ezin zirenean edo estraperloan mugaren alde batetik bestera arto zakuak soinean garraiatzeko beharra du aitzindari. **Lokotx proba** bere aldetik, arto zelaietako artaburuak saskietan bildu beharretik jaio zen, gaur egun, lurrean errenkadan kokatutako lokotxak batzean oinarritzen delarik.

Esne ekoizpena ere, herri kirol batekin zuzenki erlazionaturik dago, **txinga proba**rekin alegia. Izan ere, behiei jaitsitako esnea marmitetan garraiatzen zuten gure arbasoek, sarritan distantzia luzeak eginez, eta lan hura ardatz izanik, egun txingak ahalik eta urrutien eramaten saiatzen gara.

## Indarra erakusgai

Garraioak garraio, baziren lanak non animalien indarra ezinbestekoa zen, batez ere, tamaina handiko harriak mugitu behar zirenean. Testuinguru honetan **animalia proba / idi proba** eta **giza proba** kokatu behar ditugu. Hauetan, baserriko langilearentzat baliorik handieneko ondarea erabiltzen zuten, abelburua alegia. Pentsa zeinen garrantzitsua izango ote zen, ezen *aberastasun* hitza *abere* terminoaren etimologian oinarritzen den!

Eta indarraz ari garela, ezin dugu **harri jasotzea** ahaztu, euskaldunon kemena frogaraztea helburu zuen eta gaur egun ere duen ikuskizuna. Xede bera dauka **Ingude altxatzeak** ere, non antzina forjetan aritzeko beharrezkoa zen lanabesa, ingudea, zeinek gehiagotan altxatu zen erronka. Honez gain, ez dago zalantzarik **orga jokoa**n aritzeko ere indar handia behar dela, hau da, gurdi bat bere atzeko aldetik altxatu eta aurreko ardatzaren gainean ahalik eta bira gehien egitea xede duen kirolean aritzeko.

Azkenik, **harri zulatzaileen** (barrenadoreak) eginkizuna ere indarrarekin lotua dago, zoruan jarritako harri bat laztabinaz emandako kolpe bertikalen bitartez zulatzean baitatza.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa







## Euskal Herri berde eta euritsua

Herri kirolez hitz egiten jarraitzeko, Euskal Herriko orografia eta klimari heldu behar diogu, biek ala biek, baso trinko bat sortu eta izateko aukera ematen baitute eta ondorioz pagoa, haritza edo artea urtetan etxebizitzak eta mota orotako lanabesak egiteko lehengai nagusiak izan baitira. Naturak eskainitako aberastasun horrek bideraturik, baso inguruetako euskaldun asko egurraren jardunean aritzen ziren eta lanbide horren ondare dira **trontza** eta **aizkora** jokoak, zeintzuetan neurri jakin bateko enbor zatiak aurkariak baino lehen moztu behar diren.

## Euskaldunon itsasoa, arrantzaleek errespetu eta familiak beldur!

Lurreko lanez aritu gara orain arte, baina zeinek ukatu euskaldunok eta itsasoak betidanik izandako harreman estua! Eta zeinek ahaztu baleuntzien abenturak! Ezin dugu ez ukatu, ezta ahaztu ere egin. Gainera, **traineruen estropadak** harreman horren ondorio dira, itsaso zabaleko arrantzaren ingurutik sortutakoak baitira hain zuzen ere. Arrantzuntziek gizon indartsu eta erresistentzia handikoak behar zituzten, arraun egiteko gauza izango zirenak, arrantza tokietara iritsi eta behin arrantzan bildutakoa jaso ondoren, portura ahalik eta azkarren itzultzeko, enkantean preziorik onena jasotzen baitzuen lehena iristen zenak. Arrantzuntzi horien arteko borrokaren ondorioz, kirol lehia sortu zen herrien artean.

## Bestelako herri kirolak

**Sokatira** arrakasta handia duen beste herri kirola dugu. Diotenez, sokatira botere mistikoen ikurra da, ongiaren eta gaizkiaren arteko lehia irudikatzen baitzuten aintzinako herrialdeek orduan errito bat zenarekin. Dena den, sokatira ez da euskal girora mugatzen, munduko kultura askotan agertzen baita.

**Palanka**, **birla jokoa** eta **toka**z ere mintzatu behar dugu herri kirolen testuinguruan. Hiruek jaurtiketa dute oinarri; lehenean burdinazko barra bat jaurtitzen delarik eta bigarren eta hirugarrenean objektu biribilak eta burdinazko txanponak, hurrenez hurren. Azken bi joko hauek gainera, zehaztasuna eskatzen dute, tokan xafla bat ukitu eta birla jokoan birlak botatzea baita helburua.

Eta nola ez, **bolo jokoak**, Euskal Herrian praktikatzen diren joko guztien artean zaharrena denak, aipu berezia merezi du. Boloa eta sagardotegietako bizitza hertsiki lotuak zeuden, sagardotegia langileen atseden tokia izanik, sagardo trago eta bertsoen artean bolo jokoak protagonismo nabarmena bereganatu baitzuen. Gainera, Araban sagardotegi kulturarik ez dagoen arren, boloek berebiziko garrantzia ere izan dute eta egun zale asko dauzkan kirola dugu.

Eta nola ahaztu **karta jokoak**! Izan ere, euskaldunok karta jokalari amorratuak izan gara betidanik eta Heraclio Fournier naipe fabrika eta mus jokoa bera, euskaldunon artean garatutako errealitateak dira.

## Jolasa naturarekin errotua

Seguruenik, dagoeneko konturatuko zineten norainokoa den natura eta jolasaren arteko konexioa, izugarria! Horregatik, Xiba proiektuak inguru naturalak eskaintzen dizkigun balore hezitzaileen garrantzia azpimarratu nahi du. "Gaur egun, kirol eszenatoki gehienak estandarrak dira eta naturatik urruntzen doaz, beti estimulu berdinei leku eginez". Hona hemen Endikaren hitzak. Xibak naturak eskaintzen duen berezko arriskua landu behar izanaren ideia babesten du. Era horretan eta Enekok azaltzen digunez, "klaseko liderrak ez dira beti lider izango, zerbaitetan oso ona izateagatik miretsia dena, egoera desberdin bati aurre egiterakoan okerrago aritu daitekeelako".

## Filosofia errealitate bihurtu

Xiba egitasmoa, orain arte azaldutakoek osotzen dute eta iradoki daitekeen moduan, bere ekintza plana zabala eta interesgarria da oso. Adibidez, 'Orekaz egitasmoa' dute euren filosofia Euskal Herriko gorputz hezitzaileen artean zabaltzeko bide. Horren bitartez, irakasleei prestakuntza iraunkor bat eskaintzen diete, non gorputz heziketa arlorako programazioa udako eta neguko solsti-



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





zioetan oinarritzea proposatzen duten, antzinako euskaldunentzat urtea izotz elurren "urtze" aldia edo "uren" zikloa zela kontuan izanik. Beraz, ikasturtean zehar, ezagutza, espazio lehorreko, euskal eta munduko, elur, ur eta osasun jolasak egitea da asmoa, baita euskal dantza eta inauterien arloan sakontzea ere, aberri eguna ahaztu gabe. Endikak dioen moduan, "gure herriko kultura eta hizkuntza berreskuratzeko beharra" baitago. Ikasturteko plangintza honetan gainera, gure arbasoek egiten zuten antzera, urte berria udaberriko lehen ilberriaren arabera ospatzen dute, aurten martxoaren 26an ospatu zutelarik.

Gainera, urtero nazio mintegi bat antolatzen dute, euskal irakasleek euren hausnarketak partekatu ditzaten.

Honez gain, eskola arteko pilota jaialdi eta barnetegiak, ur barnetegiak, Olentzero pilota txapelketa, ikasarrauna, Bardeetako bizikleta martxa eta horien gisako ekintzak ere antolatzen dituzte. Bestetik, aurten 'Gozatuz' izeneko proiektua sortu dute, Xibaren metodologia eskolaz kanpoko kirol jardueretara ere zabaltzeko. Proiektu honek, gurasoek beraiek hezitzaileen papera bete dezatela bilatzen du "entrenatzailearen irudia" alboratuz, dio Enekok.

Uler daitekeen moduan, Xiba hezkuntza sistema konplexua da eta batez ere, euskal jokoen arloan egindako lanarengatik da ezaguna gaur egun (Euskal jokoak egiteko material egokituaren sorketa, ikasleen arteko euskal jokoen jaialdien antolatzea...). Hala eta guztiz ere, ekintza guztien artean, Euskal Herriko joko topaketak bereganatzen du arretarik handiena eta aurtengo deialdia dagoeneko zabalik dago●

## EUSKAL HERRIEN ARTEKO EUSKAL JOKOEN VI. JAIALDIA

Arabak maiatzaren 23an biziko du euskal jokoen seigarren topaketa. Ohikoa denez, hamabi pertsonaz osatutako hainbat taldek hartuko dute parte, bakoitzean 6 neska eta 6 mutil egon beharko direlarik. Jaialdiaren xedea euskal jokoa eta euskara sustatzea dela aintzat hartuta, parte-hartzaileek antzinako euskaldunen bizimodua gaur egunera ekarri eta lasto altxatzea, lokotx bilketa, zaku eramatea edo trontza lanak egin beharko dituzte, besteak beste. Gainera, ez dakigu behin batean Loiolan gertatu zen bezala, txoriek bezain arin egingo ote duten, baina talde bakoitzeko lau kide dantzan aritu beharko dira eta beste biri musean duten abilezia erakustea egokituko zaie. Eta noski, jaialdiaren izena kontuan izanik, xiba ahalik eta denbora gehien biraraztea ere proba bat izango da eta sokatira ere ez da faltako. Hau guztia gutxi balitz, Enekok eta Endikak sorpresatxoren bat ere izango dela esan digute...

Edizio honetako nobedade nagusiak Ozetaraino eramaten gaitu, aurten Xiba bertan ospatuko baita, herriko gazte egunarekin batera. Herri kirolak arratsalde partean burutuko dira eta ondoren nekeari aurre egiteko afari herrikoia egongo da. Gero, hainbat kontzertuk gaua girotuko dute eta logure denak antolatuko den kanpalekura joateko aukera izango du.

Asteburu ederra igarotzeko plana eskaintzen digute Xibako arduradunek eta parte hartzeko gogoarekin dagoen orok ateak zabalik dauzkala jakinarazi nahi dute. Talde bat osatu, guztien artean 100 euro bildu eta Xiban izena ematea bezain erraza da.

Zita, Euskal Herriko eskualde guztiek dute, beraz, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereako topaketak behin igarota, Euskal Herri mailako jaialdia egingo da ekainaren amaieran, Xibako finala alegia. Orduan, lurralde bakoitzeko sailkatuak elkarrekin lehiatuko dira, euskaldunon nortasun eta sustraiak betiere ardatz izanik.

**Izena emateko: enibanez @ehik.ikastola.net edo 658750998**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## SUFRIMENDUAREN BAZTERRETAN

## JESUS MARAURI:

# *"LANGRAIZEN NAHIZ TXAGORRITXUN, EZ DAGO MASKARARIK, EZ DAGO FARTSARIK"*



"Hogei urteko gaztea zen, *menino brasileiro da rua* horietako bat. Kartzelan bi urte igaro ondoren, Donostian epaitu behar zuten. Ziegan negarrez aritu zitzaidan, gozo, ama banintz bezalaxe. Epaiketan bakarrik ez uzteko eskatu zidan, Donostiara laguntzeko. Eta, nik, onartu. Abokatuari isilik egongo zela hitz eman zion, badaezpada, kontraesanik edo nahasbiderik ez sortzearren, baina eguna iritsi, eta epaileak zerbait esateko aukera eskaini ziolarik, gure harridurarako, mutilak baiezkoa eman zion. Noizbait ere itzultzailea ekarri zuten eta mutilak bi gauza esan zituen: batetik, errugabea zela eta, bestetik, 'O Padre viria ajudar-lhe', hau da, epaiketa aretoan zegoen pertsona bakarrak -nik neuk, alegia- lagunduko niola. Epaileak aske utzi zuen eta, hunkiturik, esan zidan lan handia egiten ari ginela. Eta, une batetik bestera, ustekabean, gaztea etxean nuen...".



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

t. patxi zubizarreta
a. edorta sanz & artxibo



Jesus Marauri orduan Lakua-Arriagan bizi zen, eta preso gehiago ere hartu zuen bertako etxean; baina gaur egun Seminario alboko apaiz egoitzan bizi da, eta han hartu gaitu. Halako saudadearekin mintzatu zaigu, begiak itxirik, hobeki oroitu nahi balu bezala, eta, zinez, badu zer oroiturik...

## 1. KANPEZUTIK PORTUGALERA

Hamaika urterekin hasi zen Apaiz-ikasketak egiten, Moredatik urrun ez, Guardian hain zuzen ere. Baina hamazazpirekin, uda partean, ikasketak praktikarekin uztartzen hasi zen, nekazariekin Pobesen eta langileekin Línea de la Concepción-en eta Pasaia Donibanen. "Vaticanoko II. Kontzilioak aldaketa handia ekarri zuen: Eliza aireztatu beharra zegoen, berriztatu eta herritartu... Joan XXIII. aita santua bezalakorik ez da egon harrezkero, jarraitu diotenak tokitan geratu dira".

1970.ean apaizturik, hogeita hiru urterekin Kuartangora bidali zuten. "Hamabost herrixka sakabanaturik eta berrehun bat lagun. Diktadura garai latza zen artean, baina bost urte gogoangarri igaro nituen han". Seat 600 bat erabiltzen zuen, eta, batzuetan, autoa utzitako tokira itzuli, eta haren arrastorik aurkitu ez: antza, gazteen artean autoa altxatu eta ezkutatu egiten zioten, lekualdatu. Jesusen bizitzako lekualdatzeak eta ustekabeak ere Kuartangon hasi baino ez ziren egin, izan ere, hasieran uda baterako eta gero bost urterako joan baitzen Portugalera.

**"Nire lana ez da inor konbentzitzea, are gutxiago epaitzea; batez ere entzutea da eta, ahal izanez gero, haien alde egitea**

"1974.ean, Krabelinen Iraultza gertatu zen eta Javier Arregi apaizari eta bioi Lisboa ingurura joateko aukera sortu zitzaigun. Auzune industrial batetik nekazal girora bidali gintuzten, *cortijo* moduko batera, orduan oso ezaguna zen El Lupi toreatzailearen lurretara. Ikaragarri handia zen eta ematen zuen Erdi Arora itzuli ginela. Jende xumearekin bat eginik bizi ginen, haien antzera lanean eta soldatarik gabe. Eukaristiak ere oso parte-hartzaileak ziren eta Biblia denon artean komentatzen genuen, Isaias-eta: ardiak eta lehoiak elkarrekin ibiliko dira, haurrek eskua suge zuloetan sartuko dute... Behin, baina, gabonak aldean, denak harria baino isilago geratu ziren. Halako batean gizon bat gaizki esaka hasi zen, Isaiasen kontra, nagusien alde... Nik nola-hala egin nuen aurrera eta, meza amaitutakoan, neskatila bat hurbildu zitzaidan eta esan zidan: Ba al dakizu nor zen gizon hori? El Lupi bera...".

## 2. ARANBIZKARRATIK LANGRAIZERA

Portugalen ez ezik, Espainian eta Euskal Herrian ere aldaketa historiko handiak gertatzen ari ziren. Gasteizera itzulirik, Jesus Aranbizkarra auzune berrira bidali zuten. Hemen ere jende xumearengandik hurbil ibili zen, eta orain praktika teoriarekin uztartu nahian, gizarte laguntzaile ikasketak egin zituen. Eta joera horri eutsi egingo zion aurrerantzean ere: Langraizen egon bitartean kriminologia ikasi zuen eta bioetika, gero, Madrilen.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





"Auzoan bi langile gose greban ari ziren. Haien egoera egunetik egunera okerragoa zen eta gotzainarengana jo genuen laguntza eske. Konturatu gabe, langileen nagusiekin bildurik ikusi genuen geure burua. Garaitsu hartan, bestalde, Langraizeko kartzelan kapilaua behar zuten, bertakoa, eta gotzaina nitaz oroitu zen". Patua berriro ere zetorren Jesus ustekabean harrapatzera. "Balio ez badut, alde egiteko baldintzarekin..., esan nion. Eta halaxe sartu nintzen, kasik hogei urterako!".

**~Itxitura**

Kontatzen dute izan zela behin preso errepublikar bat eta andregaiak, aldiro-aldiro, zaintzailearen ezkutuan, gazta, ogi edo pasteletan errebolber baten kulata, kanoia eta danborra sartu zizkiola. Akaberan, dozena bat bonboi -eta, barnean, zortzi bala- eramatera joan zen, hura azken bisita izango zelakoan.

Jesus Marauri Langraizera sartu zelarik, konturatu zen hara, funtzionarioez gain, apenas sartzen zela bisitaririk, eten ikaragarria zegoela gizartean eta espetxearen artean. Eta balarik ez, baina pertsonak sartzen saiatu zen. "Presoek irteterik ez badute, gizartea joango zaie bisitan". Eta gaur egun ia 200 pertsona sartzen dira zertan-hartan: alfabetizazioa, eskolak, IHESaren kontrakoak... Hala ere, behin baino gehiagotan eskatu diote besterik, gutun edo kondoiren bat kasu, baina baita mesederik ere: "Bisean emaztearekin haserretu naiz eta, arren, deituiozu, esaiozu izugarri maite dudala".

**"Presoen askatasuna bideratzeko lanetan ez dugu asmatu, berdin-berdin gaude**

Horrekin batera, presoak berak ere kartzela zulotik ateratzen saiatu da eta, urtero-urtero, hamabi bat preso astebetez ibili izan dira Santiago Bidean barrena. "Behin batez, lozakuan nengoela, ilunpetan, pentsatzeari ekin nion: nire ezkerreko gizonak emaztea hila zuen; eskuineko emakumeak, ostera, sekulakoa egina zion senarrari... Azkenean, gero eta larriago eta sosegatu ezinik, beste litera bateko preso bat esnatu eta, konturatu gabe, zezenketa bat antzezten amaitu genuen, hura zezen eta ni toreatzaile, *A San Fermín venimos* kantatzen...".

"Nire lana ez da inor konbentzitzea, are gutxiago epaitzea; batez ere entzutea da eta, ahal izanez gero, haien alde egitea". Hala ere, behin, HIESak jotako preso bat bisitatzera joan nintzen ospitalera, Enrique. Hezur huts zegoen. Erlojua ia besazpiraino igotzen zuen eta, elastikoa igota, saihetsak ageri-agerian zeuzkan. Ahopeka esan zidan: Ze pena, sinesmena horren berandu iristea... Ni izan nintzen, orduan, hitz haiek sinetsi ezinik geratu zena".

**~Kartzela**

Arestiko ipuina Manuel Rivasena da, eta ustekabeko amaiera du: preso errepublikarrak, azkenik, osatu du pistola, hartu ditu bonboietako balak, eta haiek sartzekotan dela, ohartu da beste kalibre batekoak direla, eta balak ezin direla errebolberrean egokitu, ezin duela ihes egin. Zaintzaileak, ustez, ezikusiarena egiten zuen andregaiaren gazta eta enparauekin, baina trikimailuaren jakitun zen, eta bisturi fin-fin batez bonboiak zabaldu, eta bala desegokiak sartu zituen...



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Errealitatea ere gogorra eta egoskorra da, eta espetxean gordintasun hori areagotu baino ez da egiten. Munduaren barnean halako mikromundu irizten dio Jesusek kartzelari, zuzengabekeria askoren isla eta kokaleku. "Munduaren alde honetan jaiotze hutsagatik, legearen alde honetan jaiotzeagatik sortzen diren desberdintasunak ikaragarriak dira. Mingarriegiak. Gizarteko zenbait arlotan aurrera egin dugu: intsumisioa, feminismoa, ekologia..., baina presoen askatasuna bideratzeko lanetan ez dugu asmatu, berdin-berdin gaude. Bai, noski, hor dauden pertsonek beren ardurak dituzte, baina argi dago espetxeak ez duela haien bergizarteratzea bultzatzen. Legeak preso bakoitzeko ziega bat aipatzen du, baina hori ere ez da betetzen. Langraizen 400 presorentzako tokia dago eta 1.000 baino gehiago sartu izan dituzte, hortik atera kontuak. Eta mikromundu horretan droga sartzen da, HIESa, eta suitzidio beldurgarri horiek...'.

Jesusek argi du gaur-gaurkoz ez dagoela alternatiba argirik, "Baina gutxienez egoera humanizatu dezatela, presoek espazioa izan dezatela, gelak, lantegiak, aukerak... Horrekin batera, presondegiak hirietatik hurbilago eraiki beharko lituzkete. 3. graduan dauden presoek, familiarenera edo lan egitera doazenek, ez daukate batere erraza iluntzean hara itzultzea. Eta, noski, politikariek beraien legeak ere betetzen ez badituzte...", dio eraikitzen ari diren makrokartzelari buruz.

## 3. TXAGORRITXU OSPITALEA

Langraizen hogei urtetsu igaro ondoren, eta ikusirik boluntarioekin eta Txarly apaizarekin jarraipena ziurtaturik zegoela, eten bat egin zuen berriro ere ikasketei ekiteko. Artean ez zekien bioetikako ikasketak primeran etorriko zitzaizkiola patuaren hurrengo ustekaberako: Txagorritxu.

"Lehen gaiztoekin, orain gaixoekin", esaten dio lagun batek. "Beti pertsonekin, baztertuekin, sufritzen dutenekin, azkenetan daudenekin", dio halako saudadearekin. Eta amaitutakoan, Jesusek mahai gainean duen J. A. Pagolaren 'Jesus, aproximación histórica' ikusi dugu, eta segidan Pablo Neruda etorri zaigu gogora, haren liburu baten izenburua: 'Bizi izan naiz, aitor dut'.

> **"Langraizen 400 presorentzako tokia dago eta 1.000 baino gehiago sartu izan dituzte**

Minaren kuspegi hori zabaltzen eta zorrozten are gehiago lagundu dio zenbait hilabete Angolan eta Hego Ameriketan igaro izanak. "Ikaragarria da mundu aberatsaren eta pobretuaren arteko amildegia, lotsagarria eta lotsemangarria. Hala ere, sufrimenduaren toki hauetan ez dago maskararik, ez dago fartsarik, onean zein txarrean gizakia duzu aurrez aurre, bere horretan... Niri hainbat presok eta prostitutek emandako besarkadek ez dute berdinik"●










Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ANDER

## MAIATZAK 15 OSTIRALA
## 18:30EAN LUIS DE AJURIA ARETOAN

GEU ELKARTEAREN ETA GAUEKOAK-EN EKIMENEZ, MAIATZAREN 15EAN IZANGO DUGU AUKERA ROBERTO CASTON-EN ANDER FILMA IKUSTEKO. LUIS DE AJURIA ARETOAN IZANGO DA IKUSGAI, 18:30EAN ETA DOAN. EMANALDIAREN OSTEAN, JOSEAN BENGOETXEA, PAKO REVUELTAS ETA PILAR RODRIGUEZ AKTOREEKIN HITZALDI-SOLASALDIAN PARTE HARTZEKO AUKERA ZABALDUKO DA.

ainhoa arriaga

### ANDER, ZINEMALDI NAGUSIENETAKO BATEAN (BERLINALE) ERAKUSGAI ETA SARITUA IZAN DEN LEHENDABIZIKO EUSKARAZKO FILMA

ANDER filmak, berrogeitaka urteko baserritar baten orientazio sexualaren iratzartzea kontatzen du. Anderrek ordura arte zeraman bizitza monotonoan erabateko aldaketa ematen da Jose, Perutik etorritako langilea, bere bizitzan sartzen denean. Zuzendariaren esanetan, ANDERrek bizitzan agertzen diren aukerez dihardu, joaten utzi behar ez ditugun aukera horietaz. "Familia eredu tradizionalaz eta guztiz zilegiak diren beste eredu batzuetaz aritzen da, gizartearekiko beldurraz, gutaz esango ote dutenaren beldurraz, gure buruari diogun beldurraz...".

Berdindu zerbitzutik (GLTB pertsonen arretarako Eusko Jaurlaritzako zerbitzutik) sortu zen mezu sozial eta normalizaziorako helburuarekin pelikula bat egitearen ideia. Hiru baldintza jarri zizkioten Roberto Castoni film honetarako gidoia egin zezan proposatu ziotenean: Euskal Herrian girotutako filma izan behar zuen, ikuspuntu normalizatzaile eta integratzailetik landu behar zuen GLTB gaia eta oso baliabide ekonomiko gutxirekin egin behar zuen. Horrela sortzen da ANDER, gay tematikako eta landa inguruan girotutako pelikula elebiduna. % 60 euskaraz eta % 40a gazteleraz (euskarazko azpitituluekin), "horrela eskatzen zuelako istorioak, horrelakoa delako bizitza bera."




**Zuzendari eta gidoilaria: Roberto Caston**

**Argazki zuzendaria: Kike Lopez**

**Aktore/aktoresak: Josean Bengoetxea (Ander), Christian Esquivel (Jose), Mamen Rivera (Reme), Pilar Rodriguez (ama), Leire Ucha (Arantxa), Pako Revueltas (Peio), Pedro Otaegi (Evaristo), Eriz Alberdi (Iñaki), Jose Cruz Gurrutxaga (ogi-saltzailea), Unax Martin (umea), Juantxo Kerejeta (harreragilea)**







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ROBERTO CASTON, ZUZENDARIA:

## *"Filmean hizkuntza mugak sortzen dira, emozioen mugen metafora bezala erabiltzen direnak"*

**Lehenik eta behin zorionak Berlinale nazioarteko jaialdian parte hartu eta izendapen berezia lortzeagatik. Zer ekarri dio lan taldeari maila honetako jaialdi batean parte hartzeak eta ANDER saritua izateak?**

Berlinale bezalako jaialdi baterako (Cannesen ostean garrantzitsuena dena) hautatua izatea, berez, arrakasta izugarria da. ANDERren talde artistiko eta teknikoaren partaide bakoitzari, guzti-guztion lanari, nazioarte mailan eginiko errekonozimendua da. Hori gutxi balitz, filma amaitutakoan 10 minutuz txalotzen bazaituzte, eta gainera, "kritikak" sari bat ematen badizu, zer esan ez dakizula geratzen zara. Eskerrik asko. Ezin dezaket beste ezer esan. Berlinale-k senak esaten zigun zerbait konfirmatu du, oso altu esatera ausartzen ez ginen hori konfirmatu du: ANDER pelikula ona dela, eta publikoaren zein kritikaren gustukoa dela, hain zuzen.



**ANDER filmak, urteotan Euskal Herrian sortu diren pelikulen errepertorioaren artean ezaugarri bereizgarri nabariak ditu: elebiduna, homosexualitatearen gaia landa-inguruan girotutakoa...**

ANDER landa-inguruan girotzea interes pertsonalengatik erabaki nuen. Oso gutxi landutako gaia izan da eta bestalde, nik pelikula intimista egin nahi nuen, paisaia, pelikulako beste pertsonaia bat izatea. Erabaki hori hartu nuen momentutik aurrera, euskara aukera bat baino gehiago beharrizan bat zen. Baserritarrek beren hizkuntzan hitz egin behar zuten, beren euskaran, Arratiako bailarakoan. Gizarte bat kulturalki aberatsagoa izango da bere komunikazioak zenbat eta hizkuntza gehiago erabiltzen baditu. ANDER pelikula oso aberatsa da interpretazio handiei dagokienean eta baita ñabardura txikienetan ere. Horretaz gain, aberatsa da bi hizkuntzak istorioarekin era koherente batean erabiltzen dituelako. Hizkuntzek, pertsonaiak definitzen dituzte, elkartu edo bereiztu egiten dituzte, hizkuntza mugak sortzen dira eta emozioen mugen metafora bezala erabiltzen dira.

Homosexualitatearen gaiari dagokionean, ba bai... Euskadin oso pelikula gutxi egin izan dira gai honen inguruan ('La muerte de Mikel' bakarra). ANDERrek joera hau aldatzea espero dut.

**Filma euskaraz da % 60an. Zu euskalduna ez zarela kontuan hartuta, nolakoa izan da eszena hauek zuzentzearen esperientzia?**

Ez zen batere zaila izan, aktoreen zuzendaritza erraztu zidala uste dut gainera. Hizkuntza aholkularia neukan nire alboan testua idatzi zen bezala esaten zela egiaztatzeko. Ni hitzez ahaztu eta interpretazioan zentratzen nintzen. Banekien zer esaten ari ziren (zuzendari orok dakizki buruz testuak), garrantzitsuena, esateko era zen.

**Nolakoa izan da pelikularen sortze prozesua? Aktoreak bilatzea, grabaketa,... zein zailtasunekin egin duzue topo?**

ANDERren errealizazio prozesua nahiko erraza izan zen ilusioz beteriko taldearekin egin nuelako lan. Aktoreak topatzea uste baino errazagoa izan zitzaidan. Ikaragarrizko zorte ona izan nuen Josean Bengoetxea gidoiaz maitemindu zelako, eta ni berarekin "maitemindu" nintzen muletekin ikusi eta berehala. Argazki asko ikusi nituen, baina proba bakarra, Joseanena. Beste aktoreekin ere, ez zitzaidan batere zaila suertatu. Aktoreak opari bat izan dira, bikain aritu dira. Agian, zailena, kanpoaldeko baserria bilatzea izan zen (barnealdeak beste bi baserritan grabatu ziren). Egunetan baserri baten bila egon eta gero, azkenean Julian jaunaren baserria topatu genuen, Zeanuritik oso gertu. Oso espazio garrantzitsua, horregatik kartelean ez da ezer gehiago agertzen, baserria argiztatutako leiho batekin baino ez●



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## OIHANE PEREA, bertsolaria eta ABTX'09ko txapelduna:

**31 URTE. 12 URTEREKIN GASTEIZKO BERTSO ESKOLAN IKASTEN HASI ETA DAGOENEKO BERE ETXEKO EGONGELAKO HORMAN BI TXAPEL ZINTZILIK DAUZKAN BERTSOLARIA DUGU OIHANE. AZKENA AURTEN LORTU DU.**

# "Arabako bertsolaritza gaur egun inflexio puntu batean dagoela sumatzen dut"

**t.** ane pedruzo **a.** edorta sanz

Magisteritzan lizentziatua, bertso irakasle moduan egiten du lan eta bere erronkarik hurbilena udazkenean jokatuko den Bertso Txapelketa Nagusian 2007 urtetik duen arantza kentzea da. Izan ere, eta aitortu digunez, txapelketa nagusira heldu zen lehenengo aldian, ez zen %100ean egon. Aurten beraz, dakiena eta zerbait gehiago egiten saiatuko da. Gaineratu digunez, zita horretan konpromiso kolektiboa izango du, herrialde bat ordezkatzera baitoa Asier Otamendirekin batera eta biei Araban gero eta hobea den bertso maila erakustea dagokie.

*Sustraiak* gure artean *erroturik* dauzka Oihanek, Gasteizen jaio, hazi eta gaur egun Agurainen bizi delarik. GEUrekin txapelketaren ingurukoak eta bestelakoak ere partekatu nahi izan ditu, beraz... Bota bertsoa!

**Txapela irabaztea espero zenuen?** Ez... Edozer onartzeko prest nengoen. Hori bai, kartzelako lanera pasatzen nintzela jakitean aukerak handitu ziren, nahiz eta "Asier Otamendi txapeldun" hitzak entzuteko prest egon ere. Berez, buruz burukoa berarekin jokatu eta irabazten dudan lehen aldia da!

**Kartzelan botatako bertsoa borobilenetarikoa izan zen, zer dela eta aukeratu zenuen genero indarkeria gai nagusitzat?** Astebete lehenago egunkarian irakurritako titularrak, emakume bat erail zutela zioenak, ukitu ninduen eta zuzenean etorri zitzaidan gai hori burura. Kontua mingarria da eta hortaz hitz egiteko gogoa nuen, gustura asko gelditu nintzen!

**Hura izan al zen zure bertsorik onena?** Beharbada bai... Azkenaldian buruz burukoan jaitsi naizen sentsazioa daukat eta borobildu izanaren sentipena betegarria da. Zapore onarekin amaitu nuen alegia!

**Txapela buruan zeneukala botatako bertsoan hainbat Iñaki izan zenituen kontuan, baina bat bereziki...** Bai, nire mutila... Irabazitako lehen txapela nire odoleko jendeari eskaini nion, odolak tiratu ninduen orduan... Bigarren txapela berari zor nion... *Maite zaitut* ez da askotan esaten eta horrela egiteko aukera probetxatu beharra neukan. Nire bizitzako gizonik garrantzitsuenekin konpartitu nuen une hura, Iñaki eta gure semea Unairekin.

**Txapela zure ikasle batek jarri zizun, zer sentitzen da horrelakoetan?** Aguraingo Bertso Eskolako Bingen Sainzek jarri zidan eta une horretan zera pentsatu nuen; hurrengoan nik zuri jarri nahi dizut. Arabako bertsolaritza gaur egun inflexio puntu batean dagoela sumatzen dut, garai berri baten hasieran alegia... Etorkizunari leku egin behar zaio!

**Korrika egunean bertsotan egin zenion ongietorria euskarari, nola bizi izan zenuen une hura?** Ohore bat izan zen. Izugarria izan zen arabarrok korrikari eginiko ongietorria, herri oso bat ikusi nuen Virgen Blancan, kriston giroa, plaza kolorez betea eta jendea bero-bero... Hura asteburuko bigarren saria izan zen niretzat. Gainera parte-hartzaile askok zoriontzeko unetxo bat eskaini zidaten, eta hori eskertzekoa da. Porrotxek berak ere, lekukoko mezua irakurtzera igo baino lehen "zorionak Oihane" esan zidan! Ume baten moduan sentitu nintzen orduan! Asteburu arabar euskaltzale totala izan zen!

**Duzun biziorik handiena?** Tabakoa. Kenduko dudan bizio bat da, malo-malisimo baita!

**Bertuterik?** Pasionala, grinatsua naiz.

**Akatsik?** Despistatua naiz, artistak bezala! Kar-kar!

**Zer eskatzen diozu bizitzari?** Zoriontsu izatea, baina hau ikasi behar da... Halere, nik ez dut gauza handirik behar zoriontsu izateko. Orain zoriontsua naiz eta txapelik gabe ere banintzen, e?

**Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Gezurrak eta traizioak. Egiak aurretik botatzen dituztenak miresten ditut.

**GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Noiztik?** Bai, noski! Sortu zirenetik! Bertsozale elkartea eta Geu-ren artean beti harreman polita egon da, elkarrekin urratsak eman ditugu. Geu Arabako euskalgintzaren mugimenduaren barruan lan handia egiten dagoela iruditzen zait.

**Egunkari bat?** Gara.

**Telebista saio bat?** Sustraiak! Kar-kar! Askotan ikusten ez dudan arren atsegina egiten zait, orain landa-munduarekin harreman gehiago daukat eta programak ikasteko aukera ematen dit.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# zorionak oihane!



**Beldurrik?** Maite dudan norbaiti zerbait txarra gertatzea.

**Oporrak non eta zertarako?** Kuban, ezagutzeko eta ikasteko, baina Fidel hil aurretik... Oraindik baina ez nago hori neure gain hartzeko prest! Kar-kar!

**Nora ez zinateke joango?** Marbella eta horrelako leku pijoetara.

**Eguna ala gaua?** Segun zertarako! Oso gauzalea izan naiz baina nire bizitza erritmoa aldatu da eta egunari bere puntua aurkitu diot!

**Gasteizko gaua non?** Kutxin noski, 13 urte nituenetik.

**Liburu bat?** Castillo Suarezen 'Bala hutsak'. Emakume gazte baten ikuspuntutik idatzitako poema liburu bat da. Ezberdina iruditu zitzaidan.

**Poemak aipatzen dituzula, zein da bertsoa eta poesiaren arteko harremana?** Bertsoak eta poesiak elkar elikatu dute beti, baina desberdinak dira. Poesiak hausnarketara bideratzen zaitu eta bertsoak, aldiz, zuzeneko komunikazioa dira, publizitatetik gertuago daude, inpaktua bilatzen dute.

**Film bat? Zergatik?** 'Che el argentino', ikusi dudan azkena. Barre asko egin nuen Kubatarren izaerarekin. Aktore nagusiaren interpretazioa oso ona da, Unax Ugalde ere ondo aritzen da eta gaia bera interesgarria suertatu zitzaidan. Gu beste belaunaldi batekoak gara eta film horrek ikuspuntu historikoa izateko aukera eskaintzen du.

**Edari bat?** Patxarana.

**Janari bat?** Marrubiak esnegainarekin, orain garaia da.

**Kolore bat?** Berdea. Serioa, alaia... izan daiteke tonalitate asko baitauzka. Guztietatik baina turkesa dut gustukoen. Kolore beroa iruditzen zait, gainera Euskal Herria berdea da..., nahiz eta berehala horitzen den!

**Musika talde bat?** Doctor deseo.

**Kirol bat?** Frontoi kirolak, bai ikusteko baita jokatzeko ere.

**Zer da Gasteizek duen onena?** Oso hiri anitza eta irekia dela, baita sortzailea ere.

**Txarrena?** Oraindik frankista asko gelditzen direla.

**Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** 100%ean ez baina... Bilatzen baduzu eta zuretzat lehentasuna bada bai. Momentu batean hartutako erabaki bat da, barrutik atera behar zaizuna.

**Amets bat?** Ez daukat beste munduko ametsik, gauza txikiek zoriontsu egiten naute. Ditudan ametsik gehienak bete ditut.

**Amesgaizto bat?** Errepresioa.

**Iragana, oraina ala etorkizuna?** Oraina. Bizitako momentu on batean nagoelako, gauza batzuk ikasirik eta gauza asko ikastear. Hazita sentitzen naiz.

**Zer eskatzen du herriak?** Zelan dio abestiak?? Zer eskatzen du herriak... amnistia, zer eskatzen du herriak... As-ka-ta-su-na... ●



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# BETAURREKO PROGRESIBOAK:

**147,00 € (kristalak barne)**

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48
Olagibel, 33 t. 945 25 40 84
GASTEIZ

bidean
euskararen bidean

EGUR
• Zurezko teilatuak
• Berrikuntzak
Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiain Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

dalvez
info@dalvez.com
bai euskarari

TREBIÑU SAGADOTEGIA
EGIN TXOTX!
SAGARDOTEGIKO MENUA
ASTEBURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK
Trebiñuko ASKARTZAN 945244852 / 657736599

945 22 21 53
geu aldizkaria & elkartea | pedro asua, 2 - 3.a
01008 gasteiz www.geugasteiz.com
GEU geu ELKARTEA

Iturrieta
ASKALDEGIA IREKITA
OSTEGUNETIK AURRERA IREKITA.
Gainontzeko egunak, enkarguz.
Sagardotegia



bertako sagardoa
http://iturrietasagardotegia.blogspot.com/
ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# PATXI LEHENDAKARI... BAINA ZEREN TRUKE?

**t./a.** ane pedruzo

IRAGANDAKO MARTXOAREN 1KO HAUTESKUNDEEK LUZE HITZ EGITEKO AUKERA EMAN DUTE. ORDUAN ZENBAKIAK ARGIAK IZAN ZIREN, PSEK 27 AULKI BEREGANATU ZITUEN ETA PPK 13. BIEN BATURA, 38, GEHIENGO OSOA. GAUZAK HORRELA, ORDUTIK, ADISKIDETASUN GIROA NABARMENDU IZAN DA BI ALDERDI HAUEN ARTEAN ETA HORREN ONDORIOAK AGERIKOAK DIRA DAGOENEKO.

Esaterako, Eusko Legebiltzarrak PPko Arantza Quiroga presidente izanik hasi du bere bederatzigarren legealdia. Quiroga euskaraz ez dakien lehen ganbara burua da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak euskal presoen senideei emandako diru laguntzak bertan behera gelditu dira eta hizkuntza politikak aldaketa sakonak pairatuko dituela ere ematen du. Jokoa hasia dago eta antza, Getxoko Udala eta Arabako Foru Aldundia sari preziatuak dira.
Herriak ere jolastu nahi du, beraz eman diezaiogun hitza...

## 1) Zer hausnarketa egiten duzu Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeen emaitzen gainean? 2) Zure ustez, PP eta PSEk gobernua osatzeko eta Patxi Lopez lehendakaritzara heltzeko hitzartutakoek, zer eragin izango dute zure egunerokotasunean?



### IMANOL MIRANDA, 28 URTE, IKAKO IRAKASLEA

1. PSEk Euskadin lehendakari sozialista bat egotea nahi du kosta ahala kosta, nahiz eta jakin badakien ez dituela hauteskundeak irabazi eta euren aukera ez datorrela bat Euskadiko gehiengoak bozkatutakoarekin. Gainera, boterera iristeko ilegalizazioez ere baliatu da.
2. PSE PPren nahietara makurtu da eta bere baldintzak onartu ditu lehendakaritza lortzeko helburuz, eta horrek euskarari zuzenean eragingo dio. Izan ere, hizkuntza gutxitu batek dituen beharrak ez dira aintzat hartuko, hizkuntzaren normalizazio politikak galera handiak izango baititu. Euskararen egoera kontuan izanik, hezkuntzan, lan publikoan... diskriminazio positiboa beharrezkoa dela uste dut eta sortuko den Gobernuak ez du diskriminazio hori aurrera eramango. Baliteke epe labur batean euskara beharturik ikasten duten askok euskaltegietara etortzeari uztea, ondorioz matrikulazioak jaitsiz.



### IKER (ETA AKETZ) SARRALDE, 30 (ETA 5) URTE, LANGILEA

1. Estatu Espainarraren nahia bete da oraingo honetan. Ez zuten bozka euskaldunaren gehiengorik nahi eta horrela suertatu da, D3Mren ilegalizazioak lagunduta noski. PSEk eta PPk batak besteari ezarritako baldintzez osatutako Gobernua da hauteskunde hauek utzi digutena.
2. Nire lanean adibidez euskara ikasteko laguntzak ematen dizkigute eta baliteke bertan behera gelditzea, ezetz espero dudan arren... Honez gain, nire semearen hezkuntzak ere kezkatzen nau, irakasleek euskara behar bezala ez jakitea suerta baitaiteke Gobernu honen aginpean...



### MAITE BOMBIN, 45 URTE, ERIZAIN LAGUNTZAILEA

1. Tranpa bat izan da, aukeratzeko eskatu dute eta gero hitzarmenen bitartez herriaren borondatea baztertu dute. Ez genuen horrelakorik espero eta zoritxarrez gertatu da. Herria engainatuz heldu dira boterera. Harritzekoa da baina, PP eta PSEk Espainian duten jarrera zeinen bestelakoa den Euskadikoarekin alderatuz, zertarako elkartu behar dute hemen?
2. Gauzak txarrerako aldatuko dira. Gobernu zentralarekin lotura handiagoa izango dugu, konstituzionalismoruntz joko dugu eta pixkanaka dena aldatzen saiatuko dira. Agian datozen lau urte hauetan zehar ez dugu eragin handirik nabarituko, baina Gobernu berri honek utziko dituen aztarnak agerikoak izango dira epe luzera. Espero dezagun soilik 4 urterako kontua izan dadila!



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# AMNESTY INTERNATIONAL

Amnesty International giza eskubideen aldeko borrokan jarduten duen nazioarteko erakunde indartsua bezain ezaguna daukagu. Bere lana giza eskubideen aurkako bortxaketa larriak deuseztatzean zentratzen da. Ikerketa, hezkuntza eta ekintza, lan honen pilareak. Gaur egun, 2,2 milioi kide baino gehiago ditu elkarteak, 150 herrialde baino gehiagotan jarraitzaileak. GEU, Gasteizko AI taldeko kide diren Oneka Idigoras eta Daniel Añuarekin bildu da, Amnistia Internacional-en historia, ibilbidea, jardunak eta erronkak lehen eskutik ezagutzeko.

**t.** ainhoa arriaga **a.** edorta sanz

Oneka eta Daniel bezalako kideen eskulan boluntarioari eta bultzada ekonomikoari esker bizi da AI. Izan ere, ez du erakunde publikoen diru laguntzarik ez eta donaziorik ere onartzen. "Ez dira onartzen oso zaila izan daitekeelako defenditu beharreko hainbat gauza defenditzea, ekonomikoki diru laguntzen menpekoa bazara. Estatuko diru laguntza jasotzen duzun momentutik zein punturaino kritika dezakezu estatua?", diosku Daniel Añua kideak.

Aktibistez gain, ikerketa talde profesional batekin kontatzen du, mundu osoan zehar dabiltzanak gai zehatzak lantzen eta ikertzen. Txostenak bidaltzen dira Londresen dagoen AIren Idazkaritza Nagusira eta bertatik jartzen dira martxan ekintza-metodoak, gainontzeko herrialdeak ere lanean has daitezen.

Egitasmo jakinetarako sinaduren bilketa da erakundeak presiorako erabiltzen duen tresna garrantzitsuenetako bat, www.actuaconamnistia.org web orrialdearen bitartez zabaltzen dutelarik aldarrikapen zehatzen alde sinatzeko aukera. "Internetek eraginkortasuna izugarri igo du sinaduren bilketan". Oso epe laburrean milaka sinadura elektroniko jaso ditzakete metodo honi esker. Eta honek hain zuzen ere "Ekintza Urgenteak" deritzon gauzatze plana betetzea ahalbidetzen du. Pertsona bat edo talde bat arrisku egoera larrian dagoen berri daukatenean, milaka lagunen nazioarteko sarea aktibatzen dute. Herrialde horretara eskutitzen, faxen eta e-mailen bidalketa masiboa lehenbailehen abiarazten dute, sortutako presio horrek giza eskubideen urraketa geldiarazi dezan. Premia larriko kanpaina hauetaz gain, epe luzeko kanpainak ere jorratzen dituzte, denboran iraunkorrak diren gai larriak, alegia: torturak eta heriotza zigorra, iritzi askatasuna eta kontzientzi presoen askatzea, bereizkeria ororen aurkako borroka (bereziki emakumeek zein neskatoek pairatzen dutena), genero indarkeria, gatazka armatuetan bizi direnen giza eskubideak defendatzea, ume soldaduak, armen merkataritza, inpunitatearen aurkako borroka, errefuxiatuen, desplazatuen eta etorkinen eskubideengatik lan egitea, gizarte, kultura eta ekonomia eskubideen urraketa salatzea (gosea, uraren gabezia, etxebizitza, hezkuntza, lana...).




daniel añua eta oneka idigoras, gasteizko ai-ko kideak, egoitzan



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## HISTORIA APUR BAT

**"Kontzientzia presoa: zuzenki mantentzen duen iritzia azaltzeko (hitzen edo sinboloen bitartez) galarazpen fisikoa (atxiloketa edo beste arrazoi batzuengatik) jasaten duen edozein pertsona da kontzientzia presoa, betiere biolentzia pertsonala defenditzen edo justifikatzen ez badu".**
**Peter Benson-en definizioa, 1961**

Definizio honen inguruan sortu zen Amnistia Internacional 1961. urtean Peter Benson legegizon britaniarrak 'The Guardian' egunkarian Preso ahaztuak artikulua idatzi zuenean. Hainbat herrialdetako ekintzaileak bildu eta "iritzi eta erlijio askatasunaren defentsarako nazioarteko mugimendu bat" sortzea erabaki zuten. Iritzi askatasunaren alde egiteko jaio zen Amnistia Internacional, "ideia zabalduz joan da urteetan zehar, baina jatorria hor dago" azpimarratzen du Danielek. 1965ean, kontzientzia presoak askatzeko borrokatzeaz gain, heriotza zigorraren aurka lan egitea erabakitzen dute, nahiz eta aldarrikapen berri honek "bazkide askok erakundea uztea ekarri zuen". 1972an torturaren aurkako aldarrikapena gehitzen diote bere borrokari eta horregatik, sortzen dute torturaren kontrako mundu mailako lehenengo kanpaina. Zazpi urtetara gobernuek gauzatutako pertsonen desagerpenen kontra borrokatzea erabakitzen dute eta 85ean ekiten diote giza eskubideen hezkuntzarako lanketari. Urte batzuk geroago ekintza eremua irekitzen dute "gobernuaren oposizioko talde armatuen bortxakeriei" ere aurre egiteko. Urte bertsuan, 91n, orientabide sexualagatik atxilotutako pertsonak kontzientzia preso kontsideratzera pasatzen dira eta hiru urte beranduago, eremu pribatua lantzen hasten dira. Gobernuak eta oposizioak kritikatzeaz gain, eremu pribatuan ere, giza eskubideen urraketen aurka jardutea erabakitzen dute: besteak beste, emakumeen mutilazio genitalen, esplotazio sexualaren eta genero indarkeriaren aurka lan egiten hasten dira. 1999an ezagutzen dugun azken aldaketa garrantzitsua eman zen erakundean, harreman ekonomikoek giza-eskubideetan duten eragina barneratzeko hain zuzen. "Pobrezia ez da arazo ekonomiko bat soilik, giza eskubideen urraketa bat da", azaltzen du Onekak. Hortik aurrera, eutsiko diote giza eskubideen defendatzaileek jabetzearen lanari, inpunitatearen aurka borrokatzeari eta errefuxiatuen babesa eta oinarriko aktibismoa indartzeari.

**1977an Amnistia Internacionalek Bakearen Nobel Saria irabazten du**

## GATZA ZAURIAN

### Poliziaren zigorgabetasuna tratu txarren eta torturen kasuetan

Estatu espainiarrean atxilotutako pertsonen aurkako torturak eta tratu txarrak, ekintza hedatu eta iraunkorrak dira. Gainera, jakina da, kasu hauetan inplikatutako polizia askok inpunitate osoaz disfrutatzen dutela. Amnistia Internacional, beste nazioarteko GKEE eta eragileekin batera, egoera honen aurrean bere kezka agertu izan du urteetan zehar eta hortik dator 2007an argitaratutako 'GATZA ZAURIAN' informea.

Informe honetan, AI-k ikertutako hainbat tortura eta tratu txarren kasuak kaleratzen dira eta tratu txarrak egon direla pentsatzeko arrazoiak dauden kasu guztietan ikerketa independentea bermatu behar dela, inpartziala, sakona eta zehatza izan behar duena aldarrikatzen du erakundeak. Izan ere, eta "gezurra dirudien arren, askotan salaketa jarri zaion polizia-talde bereko kideak dira kasuak ikertzeko agindua jasotzen dutenak", azaltzen du Onekak eta datu oso esanguratsuak gehitzen ditu: "Tortura salaketen %10 baino gutxiago iristen dira epaitegietara eta horietatik %2k lortzen dute sententzia kondenatorioa. Hemendik aurrera 15-20 urtez itxaron eta epaileak tortura errealak izan direla onartzen badu, erabiltzen den indemnizazio taula, trafiko istripuekin erabiltzen den bera da. Atera kontua, berdina da istripu batean saihets bat apurtzea edo poliziak ostikoka saihetsa apurtzea".

Agintariei inpunitatearekin bukatzeko eskaerekin amaitzen da 'GATZA ZAURIAN' txostena. Danielek azaltzen digun bezala, "informeak irtenbideak proposatzen ditu, egun ematen diren torturen erradiografia erreala azaleratzeaz gain".

Torturen prebentziorako aholkuei dagokienean, garrantzitsuenetakoa komisaldegi orotan kamarak eta audioa ezartzean datza. Bestalde, derrigorrezkoa ikusten dute medikuak, presoa atxilotu aurretik eta ostean ikus dezan (behin eskaera eginda, presoak aukeratutako medikua izan beharko da).

**"Estatu espainoleko agintariek, erreformak gauzatzeko, tratu txar eta tortura guztiak ikertzeko eta erantzuleak justiziaren esanetara jartzeko neurri urgenteak hartzen ez dituzten bitartean, legea betearazteko dauden funtzionarioek, legearen gainetik egoten jarraituko dute".**
**'GATZA ZAURIAN', AMNISTIA INTERNACIONAL (EDAI), 2007**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# AMNISTIA INTERNACIONAL - GASTEIZKO TALDEA

Gasteizko Amnistia Internacional taldea, 1984. urtean sortu zen eta 2005etik Barnekale Berria kalean dute egoitza. Kide guztiak boluntarioak dira, tokian tokiko beste taldeetan gertatzen den bezala (Madrilen salbu). 15 bat lagunek parte hartzen dute era iraunkor batez eta beste 10 kolaboratzaile inguruk ekintza jakinetan egiten dute lan. Burututako azken kanpaina esanguratsuen artean, Gasteizko bitxidendetan egindakoa daukagu. "Dendaz denda joan ginen saltzen zutenaren jatorria zein zen bazekiten galdetzeko, informazioa banatzeko eta diamanteen jatorriaren ziurtagiriaz galdetu eta bere berri emateko". Hiru azpitaldetan egiten dute lan, "eraginkortasunaren mesederako":

### KALEKO EKINTZA ETA MOBILIZAZIO TALDEA

AI-ren jarduera gizarteratzeko lana egiten du finean azpi-talde honek. Heriotza zigorraren aurkako sinadura bilketa egiten dute hileko lehen larunbatetan eta Gasteizko Almendraren Azokan postua ateratzen dute AI-ren produktu eta materialak erakusteko. EHUko fakultate desberdinetan egiten dute lan kanpaina desberdinetarako sinadurak biltzen eta talde hau da Gabonetako loteria bereizgarria ateratzeko arduraduna. Guantanamori buruzko antzerkia sortu zen talde honen ekimenez eta ekintza azpimarragarrien artean, 2008ko otsailean Alde Zaharrean burututako ume soldaduen egoera salatzeko kanpaina daukagu.

### ERAKUNDEEKIKO HARREMANEN TALDEA

Lau ekintzailek osatzen dute gaur egun taldetxo hau. Legebiltzarreko Giza eskubideen batzordean parte hartu izan dute, besteak beste, ARRAZAKERIAREN AURKAKO PLANA aurkezteko, izan ere eta Onekak azaltzen digun bezala "gero eta jarrera arrazista eta xenofobo gehiago ikusten dira eta beharrezkoa da gai honen inguruko formakuntza denok izatea". Batzordean bertan egin zuten 'GATZA ZAURIAN' informearen aurkezpena iazko maiatzean, gaur egun pairatzen diren tortura kasu errealen salaketa eta proposamenak egiteko. Bestalde, Arkaute akademiarekin harremanetan dabiltza, giza eskubideetan formazio posiblea




aztertzeko eta baita Eusko Jaurlaritzako migrazio sailarekin ere, etorkizunerako elkarlanak aztertzen joateko.

### ADIN TXIKIKOEN TALDEA

Arabako eskoletan material didaktikoa banatzen dute, giza eskubideetan formatzera bideratuta dagoen AI-k sortutako material didaktikoa. "Eskolen sare bat sortzen saiatzen ari gara, horrela, txiki-txikiak direnetik inplikatu eta giza eskubideen gaia ezagut dezaten".
Bideo-jokoen gaia ere landu izan




eguneko menua

Euskeraz Araba BAI
EA
www.euskoalkartasuna.org c/ san prudencio 3 gasteiz-erdialdea

azkarprint
imprenta / inprimategia
Landazuri, 7 - 945 23 30 01
GASTEIZ
• INPRIMATEGIA •

DIBUtec
Papertegi teknikoa
Landazuri, 7 · 945 13 06 07

Erraman
Argazki - Estudioa
Heraclio Fournier, 23 (laborategia) 945 13 71 02
Askatasun kalea, 5 945 26 19 91

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!!!
bokatak, pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




dute, Amnistia-k ateratako informearen bitartez, umeei biolentzia mota honek nola eragiten dien azalaraziz eta kontrolatzeko beharra aldarrikatuz.

Gasteizko taldeak egiten dituen kanpaina gehienak Madriletik aurredefinituta iristen zaizkien arren, taldearen sormen eta garapenerako tartea ere badute. Esaterako, Giza Eskubideen Nazioarteko eguna (abenduak 10) ospatzeko jaialdi moduko bat antolatzen dihardute. Gasteizko taldea ezagutaraztea lehentasunezkoa dela deritzote, eta jaialdi honek horretarako bidea emango du."Inor ez da guregana etorriko ez badakite existitzen garenik, baliabideak eta gogoa baditugu, baina ekintzak aurrera eramateko jende gehiago behar dugu."●

**GASTEIZKO AMNISTIA INTERNACIONAL TALDEA**
**Barnekale berria, 20 behea**
**01001 Gasteiz**
**945 25 94 38**
**vitoria-gasteiz@es.amnesty.org**

# GIZA ESKUBIDE GEHIAGO

## HURRENGO EUSKO JAURLARITZARAKO AMNESTY INTERNATIONAL-EN DEKALOGOA. 2009ko otsaila

1.- Ekintza terroristen eta giza eskubideen bortxaketen biktimentzako babesa.
2.- Ertzaintzan giza eskubideen formazioa handitzea.
3.- Euskal Autonomia Erkidegoan arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka indartzea.
4.- Lehen eta bigarren hezkuntzaren ezarketan aurreratzea eta baita Giza Eskubideen aurka erasotzen duten bideo-jokoen salmenta, alokairua eta hedapena debekatzea ere.
5.- Tratu txarren eta torturen prebentzio eta ikerketak hobetzea.
6.- Emakumeen aurkako biolentzia erauzten lagundu.
7.- Kanpo ekintzetako giza eskubideen defendatzaileen lana sostengatu.
8.- Kanpo ekintzetan heriotza zigorraren abolizioagatik borrokatzea.
9.- Kanpo ekintzetan torturaren erauzketagatik borrokatzea.
10.- Kanpo ekintzan pobreziaren aurka borrokatzea giza eskubideen urratze bezala ulertuta.






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## AZKENA ROCK FESTIVAL 09. GASTEIZ, MAIATZAK 14,15,16

## IBAI VILLAPUN,
### LAST TOUR INTERNATIONAL-EKO PRENTSA ARDURADUNA

# "AZKENA ROCK-EK IZAN DUEN KARTEL ONENETARIKOA DAUKAGU AURTEN"

**t.** edurne begiristain **a.** arf

Gainera, hard-rock, blues eta heavy metalaren izen mitiko bat lotu du Azkena Rock jaialdiak aurtengo egitaraua osatzeko: Alice Cooper. Festibalaren azken eguneko izen nagusia izango da. Orain dela berrogei urte lehen diskoa kaleratu zuen musikariak ikuskizun itzela eskaintzera etorriko da Gasteizera. Halaber, Azkena Rocken ohi den bezala, 70eko eta 80ko hamarkadetan sorturiko talde bat baino gehiago etorriko da: Molly Hatchet, Toy Dolls, Bad Brains eta The Queers, besteak beste. Haiekin batera, Fun Lovin' Criminals itzuliko da jaialdira (2004. urtean parte hartu zuen), baita Mike Farris ere, baina oraingoan bere talde berriaz lagunduta, The Roseland Rhythm Revue. Zalantzarik ez dago aurten ere giro apartaz gozatzeko aukera izango dela Mendizabalan. Ibai Villapunek kontatu dizkigu jaialdi honen arrakastaren gakoak.

**2009ko ARFren edizioa aldaketa nabarmen batekin dator, irailean beharrean maiatzean egingo delako aurrenekoz. Zer dela eta aldaketa hori?**

Irailean talde estatubatuarrak Europara ekartzea askoz ere zailagoa da. Maiatzean bira gehiago dago Europan zehar eta horrek asko errazten ditu gauzak. Jaialdiaren etorkizunerako ezinbestekoa zen aldaketa, aspalditik buruan geneukan ideia zen.

**Orain arte beti egin da irailean. Uste duzu data aldaketak eragina izan dezakeela jendearen parte-hartzean?**

Ez. Orain arteko salmentak oso ondo doaz.

**Last Tour Internationaletik zein irizpide jarraitzen dituzue ARFren urteroko kartela osatzeko?**

Beti garrantzitsua da kartel buru sendoak bilatzea eta lortzea, ondoren sasoian dauden momentuko taldeak ekartzen saiatzen gara eta, azkenik, talde gazte eta berriak kontratatzen. Uste dut zentzu horretan aurtengo kartela oso biribila dela.

**Aurtengo edizioan izen handiko taldeak daude (The Black Crowes, Alice Cooper, Bad Brains, Fun Lovin´Criminals...). Zer bilatu duzue aurtengo kartelarekin?**

Helburua 2005eko eta 2006ko maila mantentzea da, bai kalitateari bai jende kopuruari begira. Nire ustez Azkena Rock-ek izan duen kartel onenetarikoa daukagu aurten. Beti bezala, rock-aren barruan oso anitza den kartela daukagu. Estilo ugari biltzen dituena: rock estatubatuarra, punk-rocka, pop-rocka, garajea, hard-rock-a, etab. ...

**Pozik kartelarekin?**

Bai. The Black Crowes 2005eko ediziorako iragarrita izan genuen, baina azkenean euren bira





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GASTEIZKO AZKENA ROCK FESTIVAL-A BERRITASUN UGARIREKIN DATOR AURTEN. ZORTZIGARREN EDIZIO HONETARAKO, DATAK ALDATU EGIN DIRA AURRENEKOZ, ETA IRAILEAN IZAN BEHARREAN, MAIATZAREN 14, 15 ETA 16AN EGINGO DA, MENDIZABALA GUNEAN, OHI DENEZ. AZKEN URTEOTAKO KARTELIK "BIRIBILENA" LORTU DELA ESAN DIGU IBAI VILLAPUN LAST TOUR INTERNATIONAL-EKO PRENTSA ARDURADUNAK. THE BLACK CROWES AMERIKETAKO ESTATU BATUETAKO TALDE MITIKOA IZANGO DA KARTEL BURU. TALDEAK ESPAINIAR ESTATUAN EMANGO DUEN KONTZERTU BAKARRA IZANGO DA GASTEIZKOA.

europarra bertan behera geratu zen eta pena bat izan zen. Guretzat poz handia da Estatuan emango duten kontzertu bakarra Azkena Rock jaialdian izatea. Horrez gain, Alice Cooper, Bad Brains, Mike Farris & The Roseland Rhythm Revue, The Breeders, The Zombies, Molly Hatchet..., kartel polita da. Talde txikiagoak ere nabarmendu nahiko nituzke, Dr. Dog, White Denim, Eli 'Paperboy' Reed, Woven Hand, Elliot Brood... Ezuste handiak emango dituzte.

**ARFren 2006ko edizioa izan da orain arteko arrakastatsuena: 44.000 lagun baino gehiago bildu ziren, batez ere Pearl Jam taldeak era-**

➤➤





alice cooper



bad brains



black crowes



howlin rain



dr. dog



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**karrita. Aurtengo edizioaren kartela ere maila handikoa da... 2006ko marka gainditzea espero duzue?**

Zaila izango da. Pearl Jam-en gisako kartel buru batek lortzen dituen datuak lortzea oso zaila da. Baina uste dut gertu ibiliko garela.

**Rock festibala da ARF, baina egia da aurtengo kartelari erreparatuta, esaterako, beste musika estiloetako taldeak gero eta pisu gehiago hartzen ari direla, ezta?**

Ez dut uste hori aurtengo kontua denik. Guk beti izan dugu oso argi Rock hitzak estilo asko barneratzen zituela eta jaialdiak ere horren isla izan behar zuela. Jaialdiaren historian zehar beti izan dira rock klasikotik nabarmen aldentzen diren estiloak ordezkatzen zituzten taldeak: Bad Religion, Fun Lovin' Criminals, The Pogues...

**2002 jaio zen ARF. Baliabide gutxirekin sortu zen, eta Azkena aretoan egin zen lehen edizioa. Ordutik bilakaera handia izan du jaialdiak. Zer nabarmenduko zenuke urte hauetako bilakaeran?**

Jaialdiak bere nortasuna sendotu duela eta zaleak fidelizatu dituela.

**Zeintzuk izan dira traba edo zailtasun nagusiak ARF urtero aurrera ateratzeko?**

Jaialdi tematikoa izateak gero eta zailago egiten du talde berriak ekartzea, batik bat, kartel buruen aldetik. Zentzu horretan Azkena Rock talde berrientzako bultzada izatea bilatu da hasiera-hasieratik. Jende askok My Morning Jacket, Juliette Lewis, Rosehill Drive, Mike Farris, Jonny Kaplan, The Answer... tankerako taldeak jaialdian ezagutu ditu.

**Nola lortu duzue Estatu mailako rock jaialdi garrantzitsuenetako bat bilakatzea ARF?**

Jendea etorriko ez balitz ez litzateke garrantzitsuenetariko bat izango. Eta uste dut zaleen meritua ere badela Azkena Rock-en bizi den giroa. Horrek egiten du berezi. Urtero-urtero bertan biltzen den jendearen artean dagoen 'rollo' ona eta zenbat maite duten musika eta rock and rolla. Uste dut jaialdi honetako publikoa berezia dela.

**Gero eta musika jaialdi gehiago daude gure inguruan, indar handia hartzen ari dira jendetza izugarria eta talde oso ezagunak ekartzen dituzten jaialdi erraldoiak (BBK Live, esaterako). Horrek kalte ala mesede egiten dio ARF bezalako jaialdi bati?**

Ez dio kalterik egiten, Azkena Rock oso jaialdi berezitua delako eta bere publiko fidela daukalako.

**Egia da ARF jaialdi espezializatua dela, rock festibala baita. Zein ezberdintasun ditu gisa honetako jaialdi batek BBK Live bezalako erraldoi batekin? Giroan nabaritzen al da?**

Bai. Azkena Rock-eko giroa, aurreko erantzun batean aipatzen nuen moduan, berezia da. Formatu txikiagoa edukitzeak bere alde positiboak dauzka. Edozein modutan ere, Bilbao BBK Live-eko giroa, ezberdina izan arren, oso alaia eta dibertigarria da.

**ARFren diru laguntzekin ika-mika batzuk izan zenituzten duela urte batzuk erakunde publikoekin. Nola daude harremanak Udalarekin eta Diputazioarekin orain?**

Oso ondo. Orduan ere ondo zeuden, baina jaialdiak laguntza handiagoa behar zuen aurrera jarraitzeko. Esfortzu hura eskertzekoa izan zen Arabako erakundeen aldetik.

**Jasotako diru laguntzak nahikoak dira halako festibal bati eusteko?**

Gu pozik gaude.

**Azkena Rock Festibalaren etorkizuna erabat bermatuta dago?**

Bai.

**Zeintzuk dira ARFren erronkak, eta helburuak?**

Kalitatezko rock & roll-a programatzen jarraitzea eta gure hamargarren urteurrenera inoiz baino sendoago iristea.

**Bukatzeko, gustuko artista bat, orain arte lortu ez duzuena ARFera ekartzea...**

Betikoak: Neil Young, Bob Dylan, Tom Petty... ●

## Arabatik, Bizkaitik eta Madrildik datoz ARFren zale fidelenak

**Urtero toki guztietako jendea erakartzen du Azkena Rock Festibalak. Gertutasunetik bada ere, Arabako jarraitzaileak izan ohi dira nagusi Gasteizko Mendizabala guneko kontzertuetan. Haien atzetik, gehienak Bizkaitik eta Madrildik datoz. Hona hemen ARFera joaten den jendearen jatorriaren batez bestekoa.**

| | |
|---|---|
| Araba | % 18,10 |
| Bizkaia | % 15,10 |
| Madril | % 13,90 |
| Katalunia | % 09,90 |
| Gipuzkoa | % 07,10 |
| Valentzia | % 06,50 |
| Nafarroa | % 04,90 |
| Asturias | % 03,70 |
| Gaztela | % 03,20 |
| Galizia | % 03,10 |
| Frantzia | % 02,90 |
| Aragoi | % 02,10 |
| Errioxa | % 01,20 |
| Finlandia | % 01,00 |
| Andalutzia | % 00,80 |
| Gaztela-Mantxa | % 00,50 |
| Portugal | % 00,40 |
| Extremadura | % 00,30 |
| Balearrak | % 00,30 |
| Suetzia | % 00,30 |
| Kanariar | % 00,20 |
| Britainia Handia | % 00,20 |
| Suitza | % 00,10 |
| Murtzia | % 00,10 |
| Besteak | % 02,10 |

(A.E.B., Grezia, Israel, Australia, Italia, Norvegia...)



**hardcore superstar**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



electric eel shock



fun lovin' criminals



the breeders



soul asylum



reverendo parker



mike farris





juliette lewis



jenny dee



the jayhawks (2008)



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# MINTZALAGUNA GASTEIZEN ZABALDUZ

DAGOENEKO BI IKASTURTE IGARO DIRA MINTZALAGUNA GASTEIZERA HELDU ZENETIK. BI URTE, HAMAIKA LAGUN ETA BESTE HAINBESTE PASADIZO. ARGI GERATU DA GASTEIZEN BADELA EUSKARAZ MINTZATU NAHI DUENIK, ARGI GERATU ERE ASKOZ GEHIAGO IZAN GAITEZKEELA, IZANGO GARELA. GASTEIZEK MINTZALAGUNA BEHAR ZUEN, ETA MINTZALAGUNAK GASTEIZ BEHAR DU; URTE ASKOTARAKO!



leire elizagarai eta mikel ayerbe, dinamizatzaileak

**t.** mintzalaguna@geugasteiz.com
**a.** mintzalaguna & edorta sanz

## SORRERA

Eta halaxe da, bi ikasturte Mintzalaguna egitasmoari hasiera eman zitzaiola. Aurretik GEU elkarteak Topagunearekin (Euskara elkarteen Federazioa), batetik, eta Euskaltzaleon Elkargunearekin, bestetik, proiektua adostu, eta 2007ko martxoan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) baitan Gasteizko Udalak eta GEUk Gasteizko Mintzalaguna egitasmoa martxan jartzeko hitzarmena sinatzearekin hasi zen guztia.

Mintzapraktika programak nola edo hala ase beharreko premia bati erantzutera datoz. Izan ere, euskaldunen egoerak anitzak dira oso hizkuntza ezagutza maila eta erabilerari dagokienez; esaterako, hainbat lagun euskara erabiltzaile ohikoak dira, beste hainbat lagun euskalduntze prozesuan edo euskalduntze prozesua amaituta daude, bada inguruagatik euskara erabiltzeko aukera gutxi duen euskaldunik ere, ikastola garaitik erabili ez eta berreskuratu asmoz dabilenik... Mintzalaguna bezalako egitasmoen









Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





xedeetariko bat horien guztien arteko harremana sortu, bideratu eta sustatzea da, zertarako eta euskara erabili nahi dutenen arteko harreman sarea ehundu eta zabalduz joateko, euskara ikasgeletatik haratago ahora, gure egunerokotasunera hurbiltzeko ahalegina da, euskara gure aisialdiari lotzeko ahalegina, azken batean. Eta hori lortzeko ezinbestekoa da ohiko euskal hiztun eta euskara beren egunerokotasunean txertatzeko jomuga dutenen arteko elkarlanaren eta harremanaren bitartez bideratzea, nola bestela?

## ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Ikasturte honetan 300 lagunetik gora hurbildu zaizkigu Mintzalagunera, pozgarria eta beroa oso Gasteizek Mintzalaguna egitasmoari emandako erantzun eta harrera.

Mintzalagunera hurreratzen direnen artean, bost, sei edota zazpi laguneko taldeak sortzen dira, ahal den neurrian mintzalagunen bizitokia, adina, zaletasunak eta halako ezaugarriak kontuan hartuz, taldeak sortzeko orduan gehien baldintzatzen duen irizpidea ordutegiarena izaten bada ere. Hala, mintzalaguntzailea, hots, euskaraz hitz egiten eta komunikatzen ohituta dagoen laguna (ez irakaslea, askok pentsa lezaketen bezala), euskaraz jarioa eta komunikatzeko gaitasuna hobetu nahi duten lauzpabost mintzalagunekin elkartuta sortzen da taldea, haien guztien arteko harremana betiere berdintasunezkoa izanik, hau da, ez zaio inori zuzenketarik edota zuzen egiteko eskatzen, euskaraz egiteko baizik.

Mintzalagunetik talde proposamena egin eta behin dinamizatzaileekin lehenengo bilera eginda, talde bakoitzak erabaki dezake bere asteroko hitzorduan zer egin eta non elkartu, mintzalagunaren baldintza bakarra euskaraz egitea da-eta; hortik aurrera taldeek erabateko autonomia dute beren denbora eta hitzordua nahi bezala kudeatzeko.

Iazko ikasturtean martxoan kaleratu ziren mintzalagun talde guztiak eta orduantxe eman zitzaion hasiera programari, taldekatze lanetan denbora luzea eman ostean; aurten, aldiz, urriko matrikula epea amaituta, sortu ahala kaleratu dira taldeak, eta azarorako martxan ziren mintzalagun talde asko.

## DINAMIKA ETA EKINTZAK

Azaroaren 28an El Pilar Gizarte Etxean gauzatu zen aurkezpen ekitaldiaren bidez eman zitzaion hasiera hain emankor eta pozgarri suertatzen ari den ikasturte honi. Otsailean Juan Karlos Etxegoien Xamar idazle nafarra ➛➛



ensueños loinaz
madre vedruna 18
vitoria-gasteiz 945 13 38 38
lastairak · somierrak
burkoak · ohe arropak




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# EKAINAREN 6an MINTZA EGUNA GASTEIZEN!




Aurten laugarren aldiz ospatuko da Euskal Herri osoko mintzapraktika programetako kideak batzeko Topagune Euskara Elkarteen Federazioak antolatzen duen Mintza Eguna jai aparta. Aurreneko aldiz Iruñean ospatu zen 2006an, eta ondorengo urteetan Donostiaren eta Getxoren txanda izan zen. Oraingoan, ordea, Gasteizek hartuko du lekukoa eta ekainaren 6an Alde Zaharreko kaleak Euskal Herri osoko mintzalagun, berbalagun, mintzakide eta solaskidez beteko dira.

Ospatzeko arrazoi asko daudelako: Gasteizko Mintzalagunak bi urteotan izan duen harrera bikaina; mintzapraktika programak Euskal Herriko gero eta txoko gehiagotan martxan jarri eta egunez egun ugaritzen ari dira; egitasmo hauek euskararen normalizazioan duten eragin zuzena... Izan ere, egun 2.500 lagun baino gehiago biltzen baitira herri zein hirietan martxan diren 48 gunetako programetan. Eta ezin dugu ahaztu, partaide gehien biltzen diren mintzapraktika programa Gasteizko Mintzalaguna egitasmoa dela.

Baina Mintza Eguna ez da besterik gabeko festa bat, helburu zehatzekin sortutako jaia da. Batetik, ospakizun honen bidez mintzapraktika egitasmoen tamaina eta zabalkundea eman nahi dira ezagutzera, era berean, tokian tokiko egitasmoetan parte hartzen duten partaideei mugimendu bateratu baten kide direla ikusaraziz. Bestetik, mintzapraktikak duen aisialdiko alde ludikoa ere azpimarratu nahi da: mintzalagun, mintzakide, solaskide eta berbalagunek elkar ezagutzeko aukera paregabea baita Mintza Eguna, ikasturteari bukaera goxoa eskaintzeko modu bat.

Horrela, beraz, Gasteizen ospatuko den laugarren Mintza Eguna dela eta, ekainaren 6an bazkari erraldoi bat izango da Landatxon. Baina aurretik, hamaiketakoarekin ongietorria egingo zaie kanpotik datozen mintzalagunei, Manex Agirre eta Iñaki Viñaspre bertsolariak eta txalapartariak egongo dira, kalejira animatua ere izango da, Kirmen Uribek eta Unai Gartziak Alde Zaharreko txoko bitxien inguruan azalpenak emango dituzten bitartean; eta azkenik, bazkari ostean, Erdizka Lauetan taldearekin erromeria egongo da Landatxon bertan.

Zerbait gehiago nahi? Bada umorea, giroa, alaitasuna, betiko lagunak nahiz lagun berriak, euskara eta ondo pasatzeko gainerako osagai guzti-guztiak ere bertan izango dira. Beraz, animatu eta parte hartu, hori da egin behar den gauza bakarra. Beste guztia, Gasteizko Mintza Egunaren esku!

**2009ko Mintza Eguneko kartela eta esku-orria helbide honetan aurki daiteke: http://www.flickr.com/photos/topagunea/sets/72157617076868508/**



Mintzalagunera etorri zitzaigun euskararen isolamenduari buruzko hitzaldi interesgarri bezain entretenigarria eskaintzera. Argazki lehiaketa ere antolatu zen 'Gasteiz, aldatzen ari den hiria?' gaia harturik (www.mintzapraktika.org webguneko Gasteizko blogean ikusgai dituzue hainbat argazki paregabe). Martxoan Askartzako sagardotegira joan ginen, apirila hasieran 'Ate Hautsiak' poesia liburuan oinarrituriko emanaldi berezia ikusgai izan genuen, eta hemendik aurrerakoak ere izango dira; mendi orientazio ikastaroa egingo dugu maiatzean, eta hori guztia talde ezberdinetako kideek elkar ezagutu eta harreman sarea zabaltzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, maiatzaren 23an Euskal Herri osoko mintzapraktika programetako kideentzat Araiatik Aratzerako mendi irteera bateratua egiteko aukera egongo da. Bestalde, azken urteotan egin bezala, ekainaren 6an Mintza Eguna ospatuko da aurten, non eta Gasteizen, herri eta eskualde desberdinetako mintzalagun, berbalagun, mintzakide edota solaslagunak elkarrekin festa-giroan ikasturte amaieraz gozatzeko.

## BALORAZIOA

Iaz 220 lagun izan ziren Mintzalagunean; aurten, berriz, 298 lagun kaleratu dira Mintzalagunaren bidez; 50 talde osatzea lortu dugu, mintzalagunez mintzalagun, taldez talde, euskara Gasteizko, bazter, plaza, kale eta aho gehiagotara heldu da. Ez dira



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





nolanahiko zenbakiak bigarren ikasturtea amaitzear den honetan, eta oraindik egiteko asko badugu ere, Mintzalagunean pozik egoteko arrazoirik badugu. Badugu, halaber, datorkigunari ekiteko gogo eta indarrik, baita ideia eta asmo berririk ere.

Euskarak Gasteiz behar du, Gasteizek euskara behar du, Mintzalagunak Gasteiz behar du... hirukote honetan, norabide anitzeko bide hauetan, zu ere behar zaitugu, hurbildu Mintzalagunera!

## MINTZA EGITASMOAK EUSKAL HERRIAN

1993. urtean sortu zen lehenengo mintzapraktika programa Donostian. Handik aurrera, eskualdez eskualde, lekua hartuz joan den egitasmoa izan da, eta espero dezagun gurean ere denbora luzez gelditzea.

Orotara 48 mintzapraktika egitasmo daude martxan Euskal Herrian zehar. 450 mintzataldek hartzen dute parte. Hego Euskal Herrian euskara ahoan dutela, 2.500 lagunetik gora kalean dira Mintzalaguna bezalako egitasmoen eskutik. Zuregandik hurbil halako egitasmorik dagoen jakin nahi baduzu, jo **www.mintzapraktika.org** web orrira●




Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# KORRIKA 16









## ZORIONAK GASTEIZ,




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa






# ZORIONAK ARABA!!






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# arababixotzian



**m.** josean morlesin



## zutabea

# 2008ko maiatzaz

**t.** erlantz urtasun antzano.
historialaria



Historia oro har, baita euskal historia ere, jakina, gauza handiz nahi tikiz osaturik dago. Ohituraz, baina, eta agian bizitza aski luzea ez dugulakotz, alimaleko gauzei erreparatu egiten ohi diegu, eta tintontzian itotzen dira, ahanzturan, beharbada garrantzi handiagokoak diren bertze gauza "tipi" horiek.

Erraite baterakotz, galdera zuretako irakurle laztana, nor oroitzen ote da, egun eta hemen, 2008an, beraz iaz egin zuen eguraldiaz? Bai, jakinen ez dut ba, eguraldiaz bakarrik igogailuetan mintzo bagara ere, komunikabideek klimaz diotena inongo jite kritikorik gabe onartu ez ezik, irentsi ere egiten baitugu bazkalondoetan.

Bada, 2008ko maiatza historikoa izan zen. Zergatik? Ezagutzen ditugun datu zientifikoen arabera inoiz baino euri gehiago bota ei zuelakotz Araban. Zehazki, Gasteizen, 201 litro. Alderaketa eginez gero, maiatz hartan egin zuena, plisti-plasta eta blai-blai, hilero eginen balu gurea herrialdea ikaragarri hezea, bustia litzateke. Oihan sendoa, alegia. Amazona mitikoaz trufatzekotz modukoa...

Euskal hiriburua den Iruñean ere berdin gertatu zen, marka historikoa, 224 litro inguru. Tenperaturei dagokienez, berriz, eta duela ehun eta hogei urtetako datu onak baditugu, beti bezalakoak izan ziren, "media" ederki bete zuten.

Ondorioz, kasu, kontuz "klima aldaketa" eta horrelako paranoia mediatikoak entzuten ditugunean. Euskal Herrian, horrezaz, deus ez. Aurten ere, "google" delakoan surfeatu, irakurle, mendietan ukan dugun elur meta trinkoa ez baita hondar hamarkadetan ezagutu.

Kezkatzekotz arrazoinak bilatzen dituenari diot, zintzoki, aholku xumea, ez sinestu fitsik ere "klima aldaketa" delakoaz. Bai, ordea, eta "gauzak" iraultzen ez badira, historiak etorkizunean erakutsiko duen euskararen heriotz hurbilaz nahiz gizartearen desegitura dramatikoaz. Jarrai interneten itsasoratzen, bai, haatik "gigapan" web bisitatu, eta "1984" berrirakur■



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## geusex@emaize.com

**Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?**

**Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.**

emaize

**Anima zaitez eta bidali hona zure galderak: geusex@emaize.com**

**Emaize Sexologia Zentroko**

**profesionalek erantzungo dizute.**

**emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta**
**bueno monreal 1-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com**

**Kaixo, nire bikoteak sexu anala egitea gustatuko litzaiokeela esan dit eta nahiko nuke jakin hori normala den, minik egiten duen eta arriskurik duen.**



Zure galderen arabera badirudi sexu anala normala den edo ez jakiteak lagunduko dizula praktika hau egiten edo ez. Baita mina egiten duen edo ez jakiteak eta arriskuen inguruan informazioa izateak ere.

Galdera batzuk egingo dizkizut lagungarriak izango zaizkizulakoan:

Sexu anala normala baldin bada praktikatuko zenuke? Eta ez bada, ez?

Mina egiten badu ez zenituzke zure bikotearen desioak onartuko eta minik egiten ez badu bai?

Arriskuen arabera egin nahiko zenuke edo ez?

Agian zure erabakia oinarritzeko beste irizpide bat, zure bikotearen desioak asetzea izan daiteke, sexu anala probatzea gustatuko litzaizukeen, nola senti zaitezkeen praktikatzen,...

Pertsona batzuk ez dira duinak sentitzen praktikatzen, beste batzuk, aldiz, oso kitzikatuak.

Sexu anala praktika bat da besteen artean. Ez hobea ez okerragoa besteak baino. Guztien desioak eta beharrak desberdinak dira eta gure desio eta beharrei kasu egiteak laguntzen du gure erotikaz goza dezagun. Honek, ez dauka zerikusirik homosexualitate edo heterosexualitatearekin, gustuekin baino.

Batzuetan, sexu analak min egin dezake. Horregatik, badaude metodoak sarketa laguntzeko. Sex-shopetan tamaina ezberdineko konoak saltzen dituzte, uzkia dilatatzeko helburuarekin. Horrela, uzkia handitzen joango da eta sarketa mingarria ez izaten laguntzen du. Lubrikanteak ere oso garrantzitsuak dira praktika hau aurrera eramateko.

Arriskuen aldetik, bat zuk esandakoa izan daiteke, mina izatearena eta gaizki pasatzea. Beste arrisku bat kondoirik gabe egitea da, infekzioekin kutsa gaitezkeelako.

Beste biziera erotiko gehienak bezala, praktikarekin hobe daiteke■

*miren lpz de arregi lakuntza*

## errezeta

diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola

# LEGATZA LABEAN SALTSA BELTZAREKIN



**Osagaiak**

| | |
|---|---|
| Legatza | 4 kg. |
| Txipiroiak | 1,5 kg. |
| Txipiroi tintak | 12 poltsa. |

**Osagaiak saltsa egiteko:**

| | |
|---|---|
| Tipula txikitua | 0,5 kg. |
| Txikitutako baratxuri aleak | 6 unitate. |
| Piper berdeak | 150 gr. |
| Tomate gorri heldua | 0,5 kg. |
| Txikitutako urdaiazpiko ondua | 200 gr. |
| Oliba-olioa | 3 dl. |
| Irina | 150 gr. |
| Ardo beltza | 3 dl. |
| Arrain fumet-a | 2 l. |

**Elaborazio prozesua:**

Lehenik eta behin, kazola batean olioarekin, tipula, baratxuria eta piperra gorritu eta ondoren urdaiazpikoa sueztitu. Irinarekin loditu, arrain fumetarekin busti dena eta 20 minutuz egosi.

Bigarrenez, txipiroiak garbitu, olioarekin salteatu, gatzarekin maneatu, ardo gorria gehitu eta erdira murriztu. Bitartean ur hotzetan txipiroi tintak urtu eta puregailuarekin xehatu. Gero txipiroiekin elkartu eta irakin dena.

Hirugarrenez eta azkenik, solomoak moztu, maneatu eta aurrez koipeztatutako labe-plaka batean ipini (bata bestearengandik pixka bat bereiztuta ipintzea komeni da). Plakaren hondoa arrain fumetarekin busti, ondoren aluminio-peperarekin estali eta 6 minutuz labean 200º-tara erre. Nahi izanez gero, arroz txuriarekin platera apaindu daiteke■



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

m. iñigo sarasola




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




MONDRAGON UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

# 2009-2010 ikasturterako eskaintza

**INSKRIPZIO EPEA ZABALIK**

## HEZKUNTZA ARLOA

**HAUR HEZKUNTZAN GRADUA** *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

**LEHEN HEZKUNTZAN GRADUA** *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

**IRAKASLE IKASKETAK 2. DIPLOMATURA:**

- Haur Hezkuntza espezialitatea
- Hezkuntza Berezia espezialitatea
- Entzumena eta Mintzaira espezialitatea

**PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA** *(bigarren zikloko lizentzia, on-line eta erdi presentziala):*

- Hizkuntzen Psikopedagogia
- Esku-hartze Psikopedagogikoa

## IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ARLOA

**IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN GRADUA** *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura homologatze bidean)*

*INFORMAZIO GEHIAGORAKO:*

**HUHEZI** (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)
Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza - GIPUZKOA
Telefonoa: 943 714157 - Faxa: 943 714032
e-maila: sarrera@huhezi.edu


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# MINTZA EGUNA

## MINGAINAK DANTZAN

## 2009KO EKAINAREN 6AN, Gasteizen




mintzapraktika

topagunea
euskara elkarteen federazioa

**EGITARAUA**

**11:00etan:** Ongi etorria eta hamaiketakoa Matxete plazan
**12:00etan:** Ibilaldi gidatua
**13:30ean:** Kalejira
**14:00etan:** Bazkaria Landatxon
**15:30ean:** Sari banaketa
**16:00etan:** Erromeria Erdizka lauetan taldearekin

**ANTOLATZAILEAK**

topagunea euskara elkarteen federazioa
geu ELKARTEA
MINTZALAGUNA

**BABESLEAK**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**LAGUNTZAILEAK**

aek ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA
ika

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa